

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA

VI. PLANGINTZALDIA (2018-2022)



AURKIBIDEA

0. SARRERA	3
1. VI. PLANGINTZALDIAREN AURREKARIAK	5
2. EUSKARAREN EGOERA BFAN. V. PLANGINTZALDIAREN EBALUAZIOA	6
3. VI. PLANGINTZALDIRAKO IRIZPIDE OROKORRAK	11
4. VI. PLANGINTZALDIA: OINARRI METODOLOGIKOA	11
4.1. EME (Erreferentzia Marko Estandarra)	11
4.2. Hizkuntzen kudeaketa erakundetzea (parte-hartze saioak)	12
4.3. Plan estrategikoa	14
4.4. Kudeaketa-planak	14
4.5. Metodologiaren urratsak	15
4.6. Lehentasun komunikatiboak	15
4.7. Komunikazioa	16
5. ERAGIN-ESPARRUA	17
6. ERAGIN-EPEA	18
7. XEDE NAGUSIA	18
8. HELBURU OROKORRAK	18
9. HELBURU OROKORREN JARRAIPENA	19
10. VI. PLANGINTZALDIRAKO LAN-ILDO ESTRATEGIKOAK	20
10.1. Zerbitzu-hizkuntza	20
10.2. Lan-hizkuntza	22
11. LAN-ILDOAK ESTRATEGIKOAK BIDERATZEKO NEURRIA.....	24
12. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNEN ETA DERRIGORTASUN-DATEN EZARPENA	30



12.1. Lanpostuei esleitutako hizkuntza-eskakizunak	30
12.2. VI. plangintzaldirako derrigortasun-indizea	30
12.3. VI. plangintzaldirako derrigortasun-data berriak esleitzeko irizpideak	31
12.4. Administrazio-atalen izaera	33
13. ANTOLAKUNTZA-EGITURAK	47
14. BALIABIDEAK	49
14.1. Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak (HOEI)	49
14.2. Langileen hizkuntza-prestakuntza	50
14.3. Hizketa aplikazioa	61
14.4. Saitetako erabilera-plana kudeatzeko teknikariak	62
15. EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA	63
I. eranskina	65
II. eranskina	67



0. SARRERA

Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 6. artikulua dio euskara, gaztelaniarekin batera, hizkuntza ofiziala dela, eta Euskadiko biztanle guztiek dutela bi hizkuntzak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea. Eta eskubide hori gauzatu dadin, Estatutuaren 6. artikulua dioenez, Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek bi hizkuntzen erabilera bermatuko dute eta bien ofizialtasuna arautuko, eta haien ezagutza ziurtatzeko behar diren neurri eta baliabideak bideratu eta arautuko dituzte, Euskal Herriaren aniztasun soziolinguistikoa kontuan hartuz.

Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Autonomia Estatutuak aldarrikatzen duen euskararen ofizialtasuna abiaburutzat harturik, azaroaren 24ko 10/1982 Euskararen Legeak euskararen normalizazio eta erabileraren sustapenerako markoa definitzen du, herritarren eskubideak eta administrazioek herritarrekiko dituzten betebeharrak direlarik hartarako oinarriak. Herri-aginteei gagozkiela, 10/1982 Legeak xedatzen du herritar guztiek dutela eskubidea herri administrazioarekin nahi duten hizkuntza ofizialean harremanak izateko. Ondorioz, herri-aginteen betebeharra xedatzen du, eskubide hori muga edo trabarik gabe betetzen dela ziurtatua izan dadin.

Era berean, uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoarenak, administrazioan euskararen normalizazioa arian-arian lortzeko oinarriak jasotzen ditu. Legearen V. tituluaz azaltzen dira administrazioaren hizkuntza-normalizaziorako ezinbesteko izango diren lanabesak: lanpostuen hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun-datak.

Aipatutako legeotan xedatutakoaren arauz, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak -Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak- araubidezko marko orokorra ezartzen du, euskal herri-administrazioek euskararen erabileraren normalkuntzaren eremuan egin beharreko lanari dagokionez. Langintza horretan bete behar diren gutxieneko baldintzak, plangintzaldiak eta epeak arautzeaz gain, dekretuak bost urterako plangintzaldiak egin beharra ezartzen du Euskadiko Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan.

Zehazki, 86/1997 Dekretuaren 4. artikulua ezartzen du, euskal herri-administrazioetan hizkuntzaren normalizazio-prozesua hezurmami dadin, entitate bakoitzak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu eta gauzatu beharko duela. Era berean, lanpostu bakoitzari hizkuntza-eskakizuna ezarriko zaio eta, hala dagokionean, derrigortasun-data ere bai. Halaber, Dekretuaren 19. artikulua



ezartzen du herri-administrazioek euskararen erabilera normalizatzeko planak onartuko dituztela plangintzaldiaren lehen urtean.

Mandatu horiek guztiak betez, Bizkaiko Foru Aldundiak onartu eta garatu izan ditu bere erabilera-planak orain arteko bost plangintzaldietan. Aurreko plangintzaldi guztietan egin den ahalegin eskergaren ondorioz, aurrerapauso nabarmenak lortu dira Aldundian euskararen normalizazioan. Orokorrean euskal gizartean izan den bezala, aurrerapausoak nabarmenagoak izan dira euskararen ezagutzaren alorrean; izan ere, aurrerago ikusiko den bezala, une honetan asko eta asko dira euskara-gaitasun altua duten Aldundiko langileak.

Baina, gaitasunaren maila altua izanik ere, ezin gauza bera esan erabilera-mailari dagokionez. Bien arteko jauziak handia izaten jarraitzen du, batez ere lan-hizkuntza gisa erabiltzeari erreparatuz gero, eta horrek agerian uzten du, beste behin ere, ahaleginak erabilera areagotzearen inguruan batu behar direla.

Jakina, langileen euskara-gaitasuna hobetzen jarraitzea ezinbestekoa da, batez ere lana euskaraz egiteko trebeziak eskuratze aldera, gaitasunik gabe ez baitago erabilerarik; baina, horrez gain, agerikoa da beste neurri batzuk ere hartu beharra dagoela erabilera-maila igoko bada eta euskara jakitetik euskara erabiltzera dagoen jauzia murriztuko bada.

Hori da, azken batean, BFAren Gobernu Kontseiluak onartu duen plan honen zutaina eta izateko arrazoi nagusia. Euskal gizartea bezala, Bizkaiko gizartea ere gero eta elebidunagoa den honetan, gizartearen zerbitzuplean dagoen Administrazioak lehena izan behar du errealitate horretara egokitzen. Administrazioari bide-erakusle izatea dagokio; legeak betearaztea ez ezik -eta horren aurretik- legeak betetzea dagokio, gizartearekin batera elebidunago bihurtuaz doan Administrazioak bermatuko baitu zerbitzu aurreratua eta kalitatezkoa.

Horrekin bat, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak emanak ditu VI. plangintzaldirako irizpide orokorrak, herri-administrazio eta erakundeetan euskararen erabilera normalizatzeko planak egiteko gida izan daitezen (ikus [hemen](#)). Zer esanik ez, honako erabilera-plan hau zedarritzeko orduan irizpide horiek guztiak hartu dira kontuan.



1. VI. PLANGINTZALDIAREN AURREKARIAK

Lehenengo plangintzaldia urriaren 17ko 224/1989 Dekretuaren bidez onartu zen, eta abuztuaren 3ko 238/1993 Dekretuak aldatu eta osatu zuen dekretu hura. Geroztik, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan xedatutakoari jarraiki, lau izan dira orain arte Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak euskararen erabilera normalizatzeko onartu dituen planak:

- II. Plangintzaldia (1997-2002): Bizkaiko Foru Aldundian euskararen erabilera normalizatzeko plana (BAO, 1999-07-16, 135. zenbakia).
- III. Plangintzaldia (2003-2007): Bizkaiko Foru Aldundian euskararen erabilera normalizatzeko plana (BAO, 2005-05-12, 89. zenbakia).
- IV. Plangintzaldia (2008-2012): Bizkaiko Foru Aldundian euskararen erabilera normalizatzeko plana (BAO, 2009-01-16, 10. zenbakia).
- V. Plangintzaldia (2013-2017): Bizkaiko Foru Aldundian euskararen erabilera normalizatzeko plana (BAO, 2013-12-31, 249. zenbakia)

Horrenbestez, oraingo honetan, 2018-2022 aldi berrirako plana onartzea dagokio Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluari. Horretarako, Euskara eta Kultura Saileko Euskara Zuzendaritza Nagusiak plan-proposamena egin du, Euskara eta Kultura Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamendua onesten duen 22/2018 Foru Dekretuan ezarritako eskumenari jarraituta.



2. EUSKARAREN EGOERA BFAN. V. PLANGINTZALDIAREN EBALUAZIOA

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 18.a) artikulua ezartzen du normalizazio plan orok, besteak beste, erakundearen hizkuntza-egoera jasoko duela. Zehazki, honela dio aipatu 86/1997 Dekretuaren 18.a) artikulua:

a) erakundearen gaur egungo hizkuntza-egoera azalduko da eta, horrez gainera, lanpostu bakoitzari zein hizkuntza-eskakizun ezarri behar zaion eta, hala badagokio, derrigortasun-data ere zehaztuko da. Era berean, euskara-maila eta langileen hizkuntzaren gaitasun-prozesuari buruzko informazioa ere jasoko da bertan.

Betekizun horri begira, BFAko Euskara Zuzendaritza Nagusiak Aldundiko euskararen erabileraren egoeraren diagnostika egiteko ebaluazioa burutu du V. plangintzaldiaren amaieran. Ebaluazioa egiteko, Eusko Jaurlaritzak eta Herri Administrazioen arteko Koordinazio Batzordeak (HAKOBA) emandako irizpideei jarraitu zaie. Oinarri metodologikoa EME markoa (Erreferentzia Marko Estandarra) izan da. EMERen elementu eta adierazle-sistemari jarraitu zaio erabileraren indizeak (ehunekoa) ondorioztatzeko. I. eranskinean jasotzen da aipatutako EMERen taula osoa.

Oinarri metodologikotzat EME markoa hartzea ez da alirizira egindako hautua. Orain arteko plangintzetan, diseinatu diren erabilera-planak eta horien ebaluazioak ez dira, gehienetan, egitura eta irizpide bertsuekin egin; alde batetik joan izan da planaren diseinua, eta, beste batetik, ebaluazioa.

Alabaina, gaur egun nabarmena da gabezia hori gainditu beharra dagoela. Eta, horregatik, hurrengo plangintzaldiari begira, herri-administrazioek ahalegina egingo dute, HAKOBAREN bultzadaz, planaren diseinua eta ebaluazioa bateratzeko eta biak ere koordinatu bertsuen arabera diseinatzeko lehen aldiz.

Ahalegin horretatik eratorri da EME markoa izatea planifikaziorako eta ebaluaziorako oinarri metodologikoa. Kontuan izan behar, halaber, EMERen egiturari jarraituta egiten dela, besteak beste, euskararen erabilera neurtzen duen Bikain Ziurtagiriaren ebaluazioa ere, bai erakunde publikoetan, bai erakunde pribatuetan.

Bizkaiko Foru Aldundiak ere ahalegin horretan parte hartu du, eta, beste herri-administrazio askok bezala, EME markoan oinarrituta burutu du ebaluazioa,



hurrengo plangitzaldiaren erabilera-plana ere egitura berari jarraituta diseinatzeko asmoz.

Ebaluazioari lotuta, emaitza orokorrak gogoratuko ditugu segidan:


- o Euskararen erabilera zerbitzu-hizkuntza gisa:

Bizkaiko Foru Aldundian euskararen erabilera % 69,53 da herritarrei zerbitzua ematean. Zerbitzu-hizkuntzaren bi elementu nagusietan, honakoa da erabilera:



- o Euskararen erabilera lan-hizkuntza gisa:


Euskara barruko lan-jardunbideetan orotara % 35,93 erabiltzen da. Lan-hizkuntzaren lau elementu nagusietan, honela banatzen da euskararen erabilera:



- o Hizkuntza-eskakizunen betetze-maila orokorra:




Lanpostu guztiak kontuan hartuta, lanpostuen % 73,4tan egiaztatuta dago lanpostuko hizkuntza-eskakizuna:




Derrigortasun-data duten lanpostuak bakarrik hartuta (DD+), betetze-maila % 84,8ra iristen da, hutsik dauden 164 lanpostuak barruan hartuta.

Horrez gain, derrigortasun-datarik ez duten (DD-) lanpostuetan, langileen % 29,3k egiaztatuta dauka betetzen duen lanpostuko hizkuntza-eskakizuna edo altuagoa:




- Egiaztapenen banaketa derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan

Derrigorrezko HE duten lanpostuetan, % 84,8k egiaztatuta dauka lanpostuko hizkuntza-eskakizuna edo altuagoa, eta beste % 7,1ek HE bat gutxiago dauka egiaztatuta.



- Egiaztatutako hizkuntza-eskakizunen banaketa:

BFAko langileen % 48,6k 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dauka (beteta dauden lanpostuak bakarrik kontuan hartuz gero, % 52,2 dira 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta daukatenak).



- Balorazio kualitatiboa:

Datu kuantitatiboekin batera, hizkuntzen erabilerearen inguruan langileek duten iritzia ere jasotzeko ahalegina egin da berariaz antolaturiko *focus* taldeen bidez. Hona balorazio kualitatiboan jasotako ondorio nagusiak:

Euskara zerbitzu-hizkuntza gisa

Oro har, zerbitzua ematen denean, batez ere idatziz, euskararen erabilera bermatzen bada ere, ahozkoan langileek beharizan batzuk identifikatu dituzte. Hizkuntza-irizpideak onartuta egon arren, herritarrekiko harremanetan euskararen erabilera bermatzeko protokolo baten beharizana antzeman dute



langileek. Protokoloak honakoak zehaztu beharko lituzke: lehen hitza nola egin behar den, zein hizkuntzak duen lehentasuna, telefonoz nola aritu, euskaraz aritzeko gaitasunik ez duten langileek nola jokatu behar duten...

Euskara lan-hizkuntza gisa

Lan-hizkuntzaren inguruan jasotako datu kualitatiboak prestakuntzarekin eta hizkuntzaren kudeaketarekin lotuta daude gehienbat.

Prestakuntza orokorrari dagokionez, euskarazko eskaintza handitzeko beharrezana antzeman dute langileek.

Euskara-prestakuntza, oro har, ondo baloratu da. Eta hobetzeko artean modulu presentzial guztiak atal edo sail bereko langileekin egitea jaso da. Erabilera sustatzeko taldeak indartzeko beharra ere jaso da.

- Ondorio nagusiak

Jasotako informazioak Bizkaiko Foru Aldundiko euskararen erabilerari buruzko argazkia ematen du. Horri esker, aurrera begira kontuan hartu beharreko indarguneak eta hobetzeko esparru nagusiak ondorioztatu ahal izan dira.

Aldundian egoera nahiko positiboa da hainbat esparrutan, bai zerbitzu-hizkuntza gisa, bai lan-hizkuntza gisa (webgune eta sare sozialetan, telefono orokorren bidezko harreran, errotulazio eta bestelako elementuetan, baita langileen hizkuntza-gaitasunari eta egiaztapenari dagokionez ere). Bestetik, hobekuntza-esparruak ere antzeman dira, hala nola herritarren hizkuntza-eskubideekin zerikusi zuzena dutenak (bereziki, herritarrekiko ahozko zein idatzizko harremanetan euskararen erabilera bermatu beharra), edota euskara lan-hizkuntzat hartzearekin zerikusia dutenak (euskara sortze-hizkuntza gisa sustatzea; erakunde barruan ahozko erabilera zabaltzea; langile berrien harrera-prozesuetan euskara hasiera-hasieratik txertatzea, eta, oro har, hizkuntzen kudeaketa sail eta organo guztien kudeaketan integratzea eta komunikazioa lantzea).



3. VI. PLANGINTZALDIRAKO IRIZPIDE OROKORRAK

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2018ko martxoan ipini du herri-administrazio guztien eskura “EAEko herri-administrazio eta erakundeetan euskararen erabilera normalizatzeko planetarako irizpide orokorrak. VI. Plangintzaldia (2018-2022)” izeneko agiria.

Aipatutako agirian jasotzen dira VI. plangintzaldi honetan Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek jarraitu beharreko irizpideak. Bizkaiko Foru Aldundiak abiaburutzat hartu ditu agiri horretan ezartzen diren irizpideak, bai eta planaren kudeaketarako ezartzen den bide metodologikoa ere. Horrekin batera, V. Plangintzaldiaren ondorioak eta Aldundiko eragile desberdinekin egindako parte-hartze saioetan antzemandako hobekuntza-esparruak dira erabilera-plan berriaren zutoin nagusiak:

Bereziki, V. plangintzaldiaren ebaluazioan eta Bizkaiko Foru Aldundiko eragile desberdinekin egindako parte-hartze saioetan antzemandako hobekuntza-esparruetan eragiteko diren irizpideak dira erabilera-plan honen zutoin nagusiak.

4. VI. PLANGINTZALDIA: OINARRI METODOLOGIKOA

4.1. EME (Erreferentzia Marko Estandarra)

Gorago azaldu den bezala, Eusko Jaurlaritzak VI. plangintzaldirako emandako irizpideekin eta lan-lerroekin bat eginez, Bizkaiko Foru Aldundiaren erabilera-plan hau EME-Erreferentzia Marko Estandarraren egituran oinarritzen da.

EME lanerako markoa da. Grafikoki, laguntza-koadro bat da, erakundearen hizkuntzaren presentzia eta erabilera zertan gauzatu ohi den modu eskematiko eta ordenatuan adierazten duena.

EMEk bi ardatz nagusi ezartzen ditu: zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza. Eta bi ardatz horien barruan, lehen mailako elementuak, bigarren mailako elementuak eta hirugarren mailako elementuak sailkatzen dira.

I. eranskinean jasotzen da aipatutako EMEn taula osoa.



Egitura horretaz baliatuta, herri-administrazioek balio numeriko kuantifikatuak erabili ahal dituzte euren helburuak ezartzeko, eta erabaki ahal dute non egon nahi duten plangintzaldiaren amaieran adierazle bakoitzean (hau da, erakundeek beren ikuspena edo *bisioa* zein den aurreikusteko eta erabakitzeke modua izango dute).

Beste era batera esanda, EMEk helburuak ezartzeko modu berri bat eskaintzen digu, sarritan planetan ezarri izan diren helburuen formulazio generiko eta zehaztugabeak alde batera utzita. EMEk bide ematen du helburu zehatz eta neurgarriak planteatzeko eta, garrantzitsuagoa dena, helburuak erabilera-elementu jakinekin lotzeko.

Eta, planifikaziorako tresna izateaz gain, sistematika horren bitartez erakundeek orain arte baino metodo estandarizatu hobea dute euren helburuen eta neurrien jarraipena ere egiteko, adierazlez adierazle. Azken batean, gorago esan den bezala, planifikazioa eta ebaluazioa, biak, norabide berean lerrokatuta ipintzen ditu.

4.2. Hizkuntzen kudeaketa erakundetzea (parte-hartze saioak)

Hasierako plangintzaldietan, euskara-planen kudeaketaren ardura euskara-teknikariaren eskuetan geratzen zen kasu askotan: behin baino gehiagotan, berak diseinatzen zituen planak eta motibatzen zituen langileak, berak jartzen zituen martxan ekintza gehienak eta berak egiten zuen ebaluazioa ere. Egoera horren ahuleziaz ohartuta, euskara-batzordeak aktibatu izan dira gero eta ardurak, nolabait, partekatu egin dira era horretara. Hala ere, euskara-batzorde askoren funtzionamenduak ez du euskararen zeharkakotasuna bermatu, eta, gehienetan, kudeaketaren zamarik astunenek euskara-teknikariaren bizkar jarraitu dute. Horren guztiaren ondorioz, euskararen erabilera-planen kudeaketa erakundearen bazter batean geratu da sarritan.

VI. plangintzaldiari begira, egoera hori gainditzen joateko urratsak eman nahi dira herri-administrazioetan. Bide horretan eta kudeaketa aurreratuen eredian oinarrituta, erabilera-planak egiteko eredu berritua ezartzen du Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, VI. plangintzaldian EAEko herri-administrazio eta erakundeetan euskararen erabilera normalizatzeko planetarako eman dituen irizpide orokorren barruan.

Administrazioaren eraldaketa sustatzeko eta kudeaketa hobetzeko, zerbitzu publikoak optimizatzeko eta langileen abilezia berriak garatzeko, beharrezkoa da kudeaketa aurreratuan oinarritutako programak martxan jartzea.

Kudeaketa aurreratuko edozein programak erabat integratu behar du erakundearen kudeaketa orokorrean zehar-lerro diren gaien kudeaketa. Horrela, hizkuntzarena bezalako gai zeharkako baten kudeaketa erakundeko ordezkari zein arduradunen erantzukizuna izango da, ez hizkuntza-normalizazioko teknikariarena



soilik. Hots, zehar-lerroetako helburuak (euskararen normalizazioa, aukeraberdintasuna, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, iraunkortasuna) helburu estrategikoak dira, eta, hortaz, erakundeak berak bere osotasunean kudeatu behar dituen gaiak dira. Erakundearen ordezkariak eta erakundearen gainerako arduradunek berebiziko garrantzia dute hori horrela izan dadin.

Horretarako, erakundeko liderrak, bakoitza bere erantzukizun-esparruaren barruan, politika transbertsalen garrantziaz jabetu (euskararen normalizazioaren garrantziaz jabetu, guri dagokigunez), eta horretan eredu izan behar dira. Baina euren eginbeharra ez da mugatzen eredu izatera; euskararen normalizazioan ezartzen diren helburuen betetze-mailaren jarraipena egin behar dute, eta helburuak betetzen ez direnean, neurri zuzentzaileak hartu.

Kudeaketa berriak lider eta erakunde-ordezkarien konpromisoa eskatzen du, arduradunen eta buruen inplikazio zuzena, eta langileen parte-hartze aktiboa. Zeharkakotasuna bermatzen da horrela, eta euskara erakundearen kudeaketa-sisteman integratzen da.

Bizkaiko Foru Aldundiak ere urratsak eman nahi ditu norabide horretan, VI. plangintzaldian euskararen normalizazioaren kudeaketa erakundearen kudeaketa orokorraren barruan txertatzen joan dadin; hala, euskararena ez da izango sail edo zuzendaritza batzuen erantzukizuna, baizik eta Aldundia osatzen dugun sail, zerbitzu eta atal guztiona, betiere bakoitzari dagokion erantzukizun-eremuaren barruan. Beste gai transbertsaletan gertatzen den bezala, hizkuntza ofizialen inguruko gaiak ere Aldundia osatzen dugun organo eta pertsona guztioi eragiten digu, neurri batean edo bestean.

Izan ere, erabilera-plan honek Bizkaiko Foru Aldundian diharduten guztien partaidetza eta laguntza behar du aurrera egiteko. Aldundian lanean ari diren agintarien eta langileen bultzada barik, nekez lortuko dugu euskararen erabilera gora egitea.

Horretaz arduratuta, erabilera-plan berriari ekin aurretik, parte-hartze saioak antolatu dira BFAko eragile desberdinekin. Guztira, 160tik gora lagunek hartu dute parte. Parte-hartzaileak aukeratzeko, honako irizpide hauei jarraitu zaie: sailaren tamaina (langile-kopurua), zerbitzu eta atal guztietako ordezkariak izatea, lanpostu-tipologia guztietako ordezkariak izatea, gizon eta emakumeen arteko parekotasuna eta adina.

Saioak kideen parte-hartzea sustatzen duen metodologia interaktiboa erabiliz bideratu dira, eta euskararen erabilera inguruan dituzten iritziak, sentipenak, beharrak, ikuspuntuak eta kezak partekatu dituzte partaideek.

4.3. Plan estrategikoa



Erabilera-planaren kontzeptuaren barruan, bi plan-mota bereizi daitezke: plangintzaldi osorako plan estrategikoa eta urteko kudeaketa-plana.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak herri-administrazioei VI. plangintzaldirako eman dizkien irizpide orokorretan ezarritakoaren ildotik, bai plan estrategikoa bai urteko kudeaketa-plana EMEren arabera egituratuko dira.

Plangintzaldi osorako plan estrategikoari dagokionez, plangintzaldiaren hasieran, herri-administrazioek aurreikusi behar dute zein izango diren plangintzaldirako helburuak EME oinarri hartuta.

Era horretara, herri-administrazioek plangintzaldiaren hasieran ikusi behar dute non dauden 3. mailako adierazleak erabiltzeari dagokionez, eta, horretatik abiatuta, erabaki behar dute non egon nahi duten bost urte barru.

Bizkaiko Foru Aldundiak ere oinarri metodologiko horri jarraiki diseinatu du VI. Plangintzaldirako Erabilera Plana. Era berean, Aldundia osatzen duten sailek, Euskara Zuzendaritza Nagusiaren gidaritza eta aholkularitzarekin, plangintzaldirako helburuak landu ahal izango dituzte, betiere erabilera-plan horren helburu orokorretatik abiatuta.

Planaren kudeaketa eta jarraipena egiteko, besteak beste, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak herri-administrazioen eskura jarri duen euskarri informatikoa erabiliko da (HIZKETA aplikazioa). Aplikazio hori, halaber, sailen eskura ere jarri ahal izango da.

4.4. Urteko kudeaketa-plana

Plan estrategikoarekin batera, urteko kudeaketa-planak dira normalizazio-prozesuaren bizkarrezurra. Plan estrategikoa diseinatzerakoan, erakunde bakoitzak non dagoen aztertu du, eta non egon nahi duen aurreikusi du.

Urteko kudeaketa-planean (edo *ekintza-planean*) erakundeak urtero martxan jarriko dituen ekintzak jasoko ditu, bai eta ekintza horien arduradunak nortzuk diren eta noizko egingo diren ere.

Aldundiko sailek, Euskara Zuzendaritza Nagusiaren gidaritza eta aholkularitzarekin, aurreikusitako helburuak lortzeko martxan jarri ahal izango dituzten ekintzak jasoko dituzte kudeaketa-planean.

Bai plan estrategikoa, bai urteko kudeaketa-planak, kasuan kasuko organoak onartu, kudeatu eta ebaluatuko ditu.



4.5. Metodologiaren urratsak

Azaldu den oinarri-metodologiari jarraituta, urrats hauek emango dira Bizkaiko Foru Aldundian euskararen erabilera normalizatzeko planak garatzeko:

- 1.- Erabilera-plan honetan Aldundi osorako ezartzen diren helburuak kontuan izanik, sailek VI. plangintzaldirako plan estrategikoa zehaztuko dute Euskara Zuzendaritza Nagusiaren laguntzarekin:
 - Helburuak definitu. Plangintzaldirako helburuak ezarriko dira, hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak eta Bizkaiko Foru Aldundiak VI. plangintzaldirako ezarritako helburu orokorrak kontuan izanda.
 - Adierazleak ezarri. Sail bakoitzak bere helburuak kuantifikatu ditu EMERen adierazle bakoitzerako.
 - Estrategiak deskribatu. Ezarritako helburuak lortzeko definitzen diren lan ildoak dira estrategiak. Helburuetara heltzeko bidea adierazten dute.
- 2.- Urtez urteko kudeaketa-plana egin. Helburuak lortzeari begira, urteko ekintza-plana diseinatuko da. Ekintza-planak urtean zehar abian jarriko diren jarduera guztien aurreikuspena jasoko du.
- 3.- Plana gauzatu eta kudeatu. Euskara Zuzendaritza Nagusiaren laguntzarekin eta haren koordinaziopean, Sail bakoitzak plana gauzatu eta kudeatuko du.
- 4.- Planaren jarraipena eta ebaluazioa egin. Jarraipenak eta ebaluazioak bide emango du helburuak berrikusteko eta estrategia eta ekintza berriak planteatzeko, eta urtez urte sailetako erabilera-planak definitzen joateko.

Halaber, Euskara Zuzendaritza Nagusiak plangintzaldiaren amaieran ebaluazioa egingo du. Ebaluazio horretan jasoko da, besteak beste, plangintzaldirako ezarritako helburuen betetze-maila, eta plangintzaldi berrirako erabilera-planari begira hobetu eta indartu beharrekoak.

4.6. Lehentasun komunikatiboak

Sail bakoitzak VI. plangintzaldian ezarritako helburuak lortzeko aplikatuko dituen neurriak erabaki ahal izateko, sailean gauzatzen diren lan-jardunen izaera komunikatiboa zehaztuko da azterketa komunikatiboaren bidez. Era horretara, jakin ahal izango da zeintzuk diren helburuekin zuzeneko lotura duten komunikazioak, zeintzuk diren komunikazio horiek betetzen dituzten atalak eta langileak, eta zeintzuk diren lan-jardun horietako bakoitzean gauzatzen diren ahozko eta idatzizko komunikazio esanguratsuenak.



Gainera, lehenetsi egingo dira eragin handiko komunikazioak, hau da, herritarrei zuzendutakoak direnak, maiztasun handikoak, zabalkunde handikoak, beste idazki askotarako oinarri direnak, irudi korporatiboarekin zerikusia dutenak eta aplikazio informatikoetan sortzen direnak.

Azterketa komunikatiboak lagunduko du zehazten, halaber, zabalkunde eta komunikazio-jardunak. Horrez gain, bidea erakutsiko du hainbat ekintzatan aurrera egiteko: zirkuitu komunikatiboak azalerratu dituzte, idazki-ereduak identifikatzen lagunduko du, eta langileen prestakuntza-beharrak ere antzemateko ere balioko du.

4.7. Komunikazioa

Aldundiko eragile guztiek, langileek zein erakunde-ordezkariek planaren jakitun egon behar dute, eta erabilera-planetik bideak jarri behar dira eragileon ekarpenak jasotzeko. Beraz, informazioa emateaz gain, harremanak errazteko eta konfiantza giroa sortzeko ahaleginak egingo dira komunikazioaren bitartez, erabilera-plana erakargarria izan dadin, eta lankidetzeta eta elkarlana bultzatuz.

Halaber, sail guztiek erabilera-planerako komunikazio-plana landuko dute, eta komunikazio-ekintzen programazioa zehaztuko dute. Erabilera-planaren arrakastarako, ondo aurreikusi eta planifikatu beharreko atala da komunikazioarena.



5. ERAGIN-ESPARRUA

VI. Plangintzaldirako Erabilera Planak Bizkaiko Foru Aldundiko sail eta langile guztiak hartzen ditu bere baitan, zehazki:

- o Ahaldun Nagusiaren Kabinetea
- o Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila
- o Gizarte Ekintza Saila
- o Euskara eta Kultura Saila
- o Ogasun eta Finantza Saila
- o Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Saila
- o Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saila
- o Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saila
- o Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila

Edozelan ere, erabilera-planaren eragin-esparrua Bizkaiko Foru Aldundiaren egitura organikoari dagokiona izango da, unean-unean.

Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde autonomo den GUFEn erakundeak, berriz, plan hau onartu eta hurrengo sei hilabeteetan egingo du bere erakunderako egokitzapena.

Zerrendatutakoez gain, VI. plangintzaldi honetan Bizkaiko Foru Aldundiak proposamena egiten die sailei atxikitako sozietate publikoei, zuzenbide pribatuko erakunde publikoei eta sektore publikoko fundazioei, euren erabilera planak onar ditzaten, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren eragin-eremuaren barruan (4. xedapen gehigarria).

Halaber, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 4. xedapen gehigarrian ezarritakoa betez, sailei atxikitako enpresa-erakunde foral publikoek (*Bizkaikoa, Bizkaiko Tutoretza Erakundea, ELAren Bizkaiko Merkataritzako Ordezkaritza*), foru fundazioek (*Azkue, BOS, Bizkaia Bizkaialde, BizkayTIK*) eta merkataritza-sozietate foralek (*Aparkabisa, Azpiegiturak, Basalan, Beaz, Garbiker, Lantik, Euskalduna Jauregia, SEED Capital, Zugastel*) euren erabilera-planak egingo dituzte Bizkaiko Foru Aldundiak VI. plangintzaldian euskararen erabilera normalizatzeko plan honetan ezarritakoak oinarri hartuta.



6. ERAGIN-EPEA

Erabilera-plan hau Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak onartzen eta biharamunean jarriko da indarrean, eta hurrengo plangintzaldirako egitasmo berria onartzen den arte iraungo du.

7. XEDE NAGUSIA

Erabilera-plan honen xede nagusia da Bizkaiko Foru Aldundian euskararen erabilera areagotzen jarraitzea, bai herritarrei ematen zaien zerbitzuan, bai erakundearen barruko eginkizunak kudeatzean eta burutzerakoan, betiere herritarren hizkuntza-eskubideak betetzen direla bermatuz Aldundiarekin dituzten hartu-eman guztietan.

8. HELBURU OROKORRAK

Bizkaiko Foru Aldundiak euskararen normalizazioan egin duen bide luzeari erreparatuta eta V. plangintzaldiaren ebaluazioaren datuetatik abiatuta, honako helburu orokor hauek ezartzen dira VI. plangintzaldirako:

- Zerbitzu-hizkuntzari dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiaren helburua da herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea eta euskararen presentzia eta erabilera areagotzea erakundearen irudia erakusten den guene, jarduera nahiz ekitaldi publiko orotan eta herritarrekin harremana duten guene eta zerbitzu guztietan.

Horretarako, hazkunde zehatzak aurreikusi dira zerbitzu-hizkuntzari lotutako EME markoaren adierazle jakinetan, betiere V. plangintzaldiaren amaieran neurtutako emaitzetatik abiatuta (II. eranskina).

- Lan-hizkuntzari dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiaren helburua da euskararen erabilera indartzea Aldundiaren barne komunikazioetan, lan-tresnetan, langileen kudeaketan eta beste administrazioekin nahiz erakunde pribatuekin dituen hartu-emanetan, beharrezkoa baita herritarren hizkuntza-eskubideak bete daitezen.

Horretarako, hazkunde zehatzak aurreikusi dira lan-hizkuntzari lotutako EME markoaren adierazle jakinetan, betiere V. plangintzaldiaren amaieran neurtutako emaitzetatik abiatuta (II. eranskina).



- Lan-hizkuntzari dagokionez, gainera, Bizkaiko Foru Aldundiaren helburua da bi hizkuntza ofizialen kudeaketa erakundearen ohiko kudeaketaren barruan txertatzea eta euskararen normalizazio-plana sailetara hedatzea.

Horretarako, hazkunde zehatzak aurreikusi dira kudeaketari lotutako EME markoaren adierazle jakinetan, betiere V. plangintzaldiaren amaieran neurtutako emaitzetatik abiatuta (II. eranskina).

9. HELBURU OROKORREN JARRAIPENA

VI. plangintzaldiaren amaieran Euskara Zuzendaritza Nagusiak EME markoaren adierazleen panelaren neurketa egingo du, helburu orokorren betetze-maila ebaluatzeko.

Horrez gain, VI. plangintzaldian zehar helburu orokorrek dituzten bilakaera partzialak ezagutzeko eta -hala balegokio- hobekuntza-neurriak hartu ahal izateko, beharrezkoa da helburuen progresioa islatuko duten erreferentziatzko adierazleak ezartzea eta neurtzea. Horri begira, besteak beste, honako erreferentziatzko adierazle hauek erabiliko dira:

- 1.- Euskararen erabilera ekitaldi publikoetan. Adierazle hau plangintzaldiaren erdian eta amaieran jasoko da. Sailetako prentsa edota protokolo gaien gaineko erantzukizuna duten zuzendaritza nagusiak arduratuko dira datuak jasotzeaz, Euskara Zuzendaritza Nagusiaren gidaritza eta aholkularitzarekin.
- 2.- Euskararen erabilera herritarrei ahozko eta idatzizko harrera egitean. Adierazle hau plangintzaldiaren erdian eta amaieran jasoko da. Euskara Zuzendaritza Nagusia arduratuko da datuak jasotzeaz.
- 3.- Euskararen erabilera Aldundira euskaraz idatzita heldutako idazkiei ematen zaizkien erantzunetan. Adierazle hau plangintzaldiaren erdian eta amaieran jasoko da. Sailetako zerbitzu orokorren gaineko erantzukizuna duten zuzendaritza nagusiak arduratuko dira datuak jasotzeaz, Euskara Zuzendaritza Nagusiaren gidaritza eta aholkularitzarekin.
- 4.- Euskararen erabilera langileen arteko ahozko harreman ez-formaletan Aldundi barruan. Adierazle hau plangintzaldiaren erdian jasoko da; Euskara Zuzendaritza Nagusia arduratuko da datuak jasotzeaz.
- 5.- Euskararen erabilera Aldunditik beste administrazioetara bidalitako idazkietan. Adierazle hau plangintzaldiaren erdian eta amaieran jasoko da. Sailetako zerbitzu orokorren gaineko erantzukizuna duten zuzendaritza nagusiak arduratuko dira datuak jasotzeaz, Euskara Zuzendaritza Nagusiaren gidaritza eta aholkularitzarekin.
- 6.- Erabilera-plana onartuta duten sailen kopurua. Datu hau urtero jasoko da. Sailetako zerbitzu orokorren gaineko ardura duten zuzendaritza nagusiak



arduratuko dira datuak jasotzeaz, Euskara Zuzendaritza Nagusiaren gidaritza eta aholkularitzarekin.

Datuak jasotzearen ardura aipatutako zuzendaritza nagusia izango da, edo, Aldundiaren unean-uneko egitura organikoaren arabera, dagokion zuzeneko erakunde-ordezkararena.

VI. plangintzaldiak aurrera egin ahala, erreferentziazko beste adierazle batzuk hobetsi ahal izango dira, egoki ikusiz gero.

10. VI. PLANGINTZALDIRAKO LAN-ILDO ESTRATEGIKOAK

Plan estrategiko honetan ezarri diren helburu orokorrak betetzeari begira, esparru batzuek berebiziko garrantzia dute, eta lan-ildo nagusiak dira plana garatzerakoan. Batzuek alderdi kualitatibotik dute garrantzia, herritarren hizkuntza-eskubideen bermea ziurtatzeari eragiten diotelako; beste batzuk, aldiz, alderdi kuantitatibotik dira esanguratsuak, euskararen erabilera areagotzeko giltzarri direlako.

Ondorengo hauek dira Bizkaiko Foru Aldundian VI. plangintzaldirako aurreikusi diren lan-ildo nagusienak. Sailek lan-ildoak lehenetsiko dituzte euren erabilera planak egiterakoan, eta neurri zehatzak hartuko dituzte ildo horiek garatzeko, beharrezkoa denean. Horretarako, betiere, Euskara Zuzendaritza Nagusiaren gidaritza eta aholkularitza izango dute:

10.1. Euskara zerbitzu-hizkuntza gisa

- **Jendaurreko ekitaldiak:** V. plangintzaldiaren ebaluazioan jasotako datuetan ikusten denez, jendaurreko ekitaldietan euskararen erabilera % 43koa da. Hurrengo 5 urteetan ahalegin berezia egin behar da arduradun zein langileek bideratutako jendaurreko ekitaldietan euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko.
- **Herritarrekiko idatzizko harremanak:** esparru honetan, oraindik ere, hizkuntza-eskubideen urraketak gertatzen dira. V. plangintzaldiko datuek adierazten dutenez, Bizkaiko Foru Aldundiak herritarrei bidalitako idatzizko komunikazio ofizialen % 29 gaztelania hutsean egiten da. Plangintzaldiaren amaierarako bermatu egin behar da Bizkaiko Foru Aldundia dokumentu-igorle den guztietan lehenengo komunikazioa edo ele bietan egiten dela, edo euskaraz egiten dela euskaraz komunikatzea hautatu duten herritarrekin.



Hala behar denetan, Sailek neurri zehatzak hartuko dituzte herritarrekin dituzten idatzizko hartu-emanak euskaraz gauzatzen direla bermatzeko, hala eskatu duten herritarrekin.

Ahozko harreran bezala, idatzizko harremanetan ere Bizkaiko Foru Aldundiaren jarduteko irizpide nagusia izango da herritarrei euskarazko hartu-emana bermatzea eta erraztea, horretarako ekimena eta proaktibitatea erakutsiz.

Era berean, hizkuntzen kudeaketa egokia egin ahal izateko, ezinbestekoa da Aldundira iristen diren idazkien hizkuntza ezagutzea kasu guztietan eta horretarako neurriak hartzea.

- **Herritarren euskarazko eskaera idatziari emandako erantzuna:** herritarrek euskaraz komunikatzea hautatu ostean edota idatzia euskaraz bidali ostean, Bizkaiko Foru Aldundiak herritarrei bidalitako idatzizko komunikazioen % 29 gaztelaniaz edo ele bietan izaten da. Plangintzaldiaren amaierarako, kasu horietan Bizkaiko Foru Aldundiak bidaltzen dituen idatzizko komunikazioak euskaraz izatea bermatu behar da, % 100ean.

Erakunde eta herritar batzuek Aldundiarekin dituzten harremanak euskara hutsez izatea eskatu dute. Eskaera hori egin dutenei zerbitzua % 100ean euskaraz ematen zaiela bermatu behar da.

Sailek ziurtatuko dute euskara hautatu duen herritarrari euskarazko komunikazioa bermatzen zaiola prozeduraren urrats eta idazki guztietan.

- **Herritarrekiko ahozko harremana:** V. plangintzaldiaren ebaluazioak erakusten duenez, herritarrei telefonoz eta aurrez aurre egindako harrera gaztelaniaz egiten da hamarretik lautan (% 46). Aurrez aurreko harrera eraikin eta instalazio ugartan egiten da. Hainbat dira horretarako dauden guneak, kontrol-puntuak, arretagune, bulego eta abarrak.

Sail guztiek neurriak hartuko dituzte herritarrei harrera euskaraz egiten zaiela bermatzeko, gune horietan guztietan eta helburu horretarako eratutako toki guztietan.

Bizkaiko Foru Aldundiaren jarduteko irizpide nagusia izango da herritarrari euskarazko hartu-emana bermatzea eta erraztea, horretarako ekimena eta proaktibitatea erakutsiz.

Irizpide hori berdin zainduko da harrera aurrez aurre egiten denean nahiz telefono bidez edo bestelako sistemen bidez egiten denean.

Aldundiaren partetik herritarren harreran zuzenean edo zeharka parte hartzen duten langileek ere irizpide nagusi hori beteko dute, bai Aldundiaren menpeko langileak direnean, bai Aldundiak kontrataturiko hirugarren enpresetako langileak direnean (hala nola, segurtasuna, zaintza, etab.).



10.2. Euskara lan-hizkuntza gisa

- **Erakundearen idatzizko barne-komunikazioa:** euskararen erabilera baxua antzeman da barruko idatzizko harremanetan (emailak, laneko bileretako idazkiak, barruko idazkiak, etab.): % 32,50. Euskararen presentzia gehienbat ele bietako idazkietara mugatzen da, eta, gehienetan, itzulpen bidez lortutako erabilera da. Euskararen erabilera areagotzeko, beharrezko ikusten da euskara sortze-hizkuntza gisa sustatzea, sistematikoki itzulpenaz baliatu barik.
 - **Erakundearen ahozko barne-komunikazioa:** langileen arteko ahozko harremanetan euskararen erabilerak gora egin badu ere, oraindik oso baxua da. Lan-bileretan, telefonoz zein harreman informaletan euskararen erabilera, batez beste, % 16koa da. Hortaz, ezinbestekoa da esparru horretan euskararen erabilera areagotzeko neurriak hartzea. Kontuan hartu behar da ahozko komunikazioa indartzea eta finkatzea oinarrizko urratsa dela idatzizko komunikazioa ere indartu eta areagotzeko.
- Sailek, Euskara Zuzendaritza Nagusiarekin batera, neurriak hartuko dituzte langileen arteko ahozko hartu-emanetan euskararen erabilera sustatzeko, bereziki barruko lan-bileretan, barruko telefono-deietan eta langileen aurrez aurreko harremanetan.
- **Baliabide informatikoak:** plangintzaldi honetan neurriak hartuko dira instalatuta dauden euskarazko aplikazio eta programa informatikoen jarraipena egin ahal izateko.
 - **Langileen kudeaketa:** VI. plangintzaldian zehar hainbat langilek erretiroa hartzea aurreikusten da. Beharrezkoa izango da langile etorri berrientzako harrera-protokoloetan hizkuntzen erabileraren kudeaketari buruzko informazioa txertatzea.
 - **Laneko prestakuntza:** beharrezko ikusten da langileei eskaintzen zaien prestakuntzan euskararen erabilera sustatzea. Horrez gain, Bizkaiko Foru Aldundiak sustatu egin behar du langileek euskarazko ikastaro horietan parte-hartzea; normalizazioari begira, hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea bezain eraginkorra izan daiteke prestakuntza euskaraz egitea.
 - **Administrazioekiko kanpo-harremanak:** idatzizko zein ahozko harremanetan euskararen erabilera baxua da (idatziz % 61, eta ahoz % 40). Zenbait administrazioek Bizkaiko Foru Aldundiarekiko harremanak euskaraz izatea eskatu du; kasu horietan, % 100ean bermatu behar da euskararen erabilera.

Beste zenbait kasutan ere, adostasuna tarteko, posible da komunikazioa euskaraz egitea, dena ele bietan egin beharrean.



Erakunde pribatuekiko harremanetan ere, ahozkoetan zein idatzizkoetan, euskararen erabilera sustatu beharra antzeman da. Erakunde pribatuekiko komunikazioetan ere, adostasuna tarteko, posible da euskarazko komunikazioak izatea.

- **Erakundearen kudeaketan euskararen kudeaketak duen txertatze-maila:** hizkuntzen kudeaketak erakundearen kudeaketan duen txertatze-maila baxua da, % 15ekoa, jasotako datuen arabera. Beharrezko ikusten da euskararen erabilera erakunde osoaren erantzukizuna dela jabetzea, eta ez bakarrik Aldundiko organo batzuen.

Hizkuntzak komunikatzeko tresna dira, eta jardun guztietan dauden osagaiak dira. Esparru, gai eta lan-mota orotan eragiten dute. Horregatik, beharrezkoa da jabetzea hizkuntzen erabilera -euskararena edo/eta gaztelaniarena- Aldundiko partaide guztien ardura dela, hau da, sail, zuzendaritza, zerbitzu, atal eta langile guztiek daukatela euskararen erabileraren gaineko erantzukizuna, zeinek bere eragin-esparruan. Azken batean, hizkuntzen kudeaketa erakundetzea da helburua.

- **Sortze-hizkuntza:** gaur egun sortze-hizkuntza lautik hirutan gaztelania da, eta euskararen presentzia bermatzeko itzulpena jotzen da gehienetan. Hori dela eta, neurriak hartzea komeni da, euskara sortze-hizkuntza izan dadin gero eta gehiago.

Euskara Zuzendaritza Nagusiak bitartekoak eta aholkularitza eskainiko ditu sailek neurriak har ditzaten idazkiak euskaraz sortzeko, sistematikoki itzultzera bidali gabe.

- **Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak:** irizpideak ez dira behar bezala ezagutzen edo/eta ez dira beti betetzen, eta, jasotako datuen arabera, erdietan bakarrik betetzen dira. Horrez gain, kasu guztietan ez zaie jarraipenik egiten. Hori dela eta, betetze-maila areagotzeko zein jarraipena egiteko bideak ezartzeko neurriak hartuko dira.



11. LAN-ILDO ESTRATEGIKOAK BIDERATZEKO NEURRIAK

Arestian aipatutako lan-ildoak garatu ahal izateko, Bizkaiko Foru Aldundiko sail guztientzako neurriak proposatzen dira segidan. Sail bakoitzak bere plan estrategikoan ezarritako helburuak lortzeko hartuko dituen neurrien kalterik gabe, sailek hemen jasotzen direnak lehenetsiko dituzte. Horretarako, betiere, sailek Euskara Zuzendaritza Nagusiaren gidaritza eta aholkularitza izango dute.,

Bestalde, Aldundi osorako neurri orokorrak hartzea sail baten ardurapekoa den kasuetan, sail horrek sustatuko eta gauzatuko ditu neurriak Aldundi osoan, dagokion menpeko organoaren bitartez.



EUSKARA ZERBITZU-HIZKUNTZA GISA BULTZATZEKO LAN-ILDO ESTRATEGIKOAK ETA NEURRIAK

Z1. Jendaurreko ekitaldiak

Z1.1. Protokolo laburrak zehaztu, antolatzen diren ekitaldi publikoetan hizkuntzen erabilera finkatzeko. Horretarako oinarria Bizkaiko Foru Aldundian hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideetan jasotakoa izango da.

Z2. Herritarrekiko idatzizko harremanak

Z2.1. Herritarren eskura ipintzen diren idazki guztiak (inprimakiak, esku-orriak, txartelak, informazio-orriak, etab.) ele bietan egoteaz gain, euskaraz ere badaudela ziurtatu, hala nahi duten herritarrentzako euskarazko bertsioa beti eskuragarri izan dadin.

Z2.2. Izapidetza elektronikoari dagokionez, hizkuntza bietan lan egiteko prestatu gabe dauden baliabideak egokitzeko egutegia egingo da; arian-arian, guztiak egokituko dira.

Z2.3. Derrigortasun-data egiaztaturik dagoen lanpostuetan funtzio batzuk euskaraz egin modu progresiboan. Horretarako, sailek, Euskara Zuzendaritza Nagusiaren gidaritzapean, neurri hori planifikatuko dute eta VI. plangintzaldian zehar euskaraz burutuko diren funtzioen hurrenkera erabakiko dute, betiere euren erabilera-planean aurreikusitakoarekin bat.

Z2.4. Bizkaiko Foru Aldundiarekin harremanak euskaraz izan nahi dituzten herritarrei aukera eman, nahi hori adieraz dezaten.

Z2.5. Irteera- eta sarrera-erregistroetan idazkien hizkuntza adieraziko da kasu guztietan. Erregistroa egiterakoan adieraziko da Aldundira iritsitako edo Aldunditik bidalitako idazkiak euskaraz, gaztelaniaz edo ele bietan dauden. Ofizio batekin batera doazen idazkien kasuan (txostenak, memoriak nahiz bestelako idazkiak), orokorrean ofizioaren hizkuntza adieraziko da.

Z3. Herritarren euskarazko eskaera idatziari emandako erantzuna

Z3.1. Bizkaiko Foru Aldundira euskaraz idatzita iristen diren idazki guztiei euskaraz erantzuten zaiela bermatu, bai erantzun elektronikoetan, bai paperezkoetan eta bestelakoetan.



Z3.2. Erantzunak euskaraz eman ahal izateko, idazkiak prestatu. Hala behar denean, tresna informatikoetarako egokitu. Hizkuntza batean zein bestean lan egiteko prestatu gabe dauden baliabideak egokitzeko egutegia egin, eta, arian-arian, guztiak egokitu.

Z4. Herritarrekiko ahozko harremana:

Z4.1. Herritarrei harrera egiten zaien bulego, atal edota gune guztietan protokoloak prestatu, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeari begira.

Z4.2. Hizkuntzarekiko jokabide proaktiboa lantzeko egitasmoak bideratu, herritarren eskaeraren zain egon beharrian norberaren ekimenez egiteko euskaraz.

Z4.3. Harreraguneetan egon daitezkeen hirugarren enpresetako pertsonen hizkuntza-ezagutzaren eta hizkuntza-harreraren etengabeko hobekuntza bultzatu.

Z4.4. Langileek lehen hitza euskaraz egingo diete herritarrei, aurrez aurre nahiz telefonoz, eta une oro ahalbidetuko dute herritarrek euskaraz hitz egitea. Sailek ardura hartuko dute arretaguneetan dauden langileek irizpide nagusi hori bete dezaten.

Z4.5. Halaber, arretaguneetako hizkuntza-paisaia osatzen duten elementu guztiak behintzat euskaraz daudela ziurtatu, finkoak nahiz behin-behinekoak (errotuluak, oharrak, pantailak, abisuak, makinak, seinaleak, etab.).



EUSKARA LAN-HIZKUNTZA GISA BULTZATZEKO LAN-ILDO ESTRATEGIKOAK ETA NEURRIAK

L1. Erakundearen idatzizko barne-komunikazioa

L1.1. Mikroplanak abiatu horretarako aukera dagoen ataletan, apurka-apurka idatzizko jardunak euskaraz burutzeko.

L1.2. Euskaraz zer lan egingo diren zehaztuko da, eta urratsak emango dira arian-arian euskaraz egin daitezen. Halaber, euskaraz egingo diren prozeduretan, lanaren antolamendua aztertuko da, langileek ez dezaten izan lan-karga handiagorik edo bestelako kalterik.

L2. Erakundearen ahozko barne-komunikazioa

L2.1. Idatzizko barne harremanetan bezala, mikroplanak abiatu euskarazko ahozko hartu-emanak sustatzeko

L2.2. Aurrez aurre zein telefonoz euskaraz aritzeko gonbidapena egiteko egitasmoak bultzatu.

L2.3. Sailetan euskaraz egiten diren laneko bileren aurreikuspena landu, eta, modu progresiboan, bilerak euskaraz egin.

L3. Baliabide informatikoak

L3.1. Protokoloa garatuko da, aplikazioak eta kudeaketa elektronikorako tresnak sortzeko garaian nahiz egokitzeko garaian BFAk indarrean dituen hizkuntza-irizpideak betetzen direla bermatzeko.

L3.2. Instalatuta dauden euskarazko programa eta tresna informatikoen errolda egin.

L3.3. Sarrera-irteerak bideratzeko erabiltzen diren tresna informatikoak egokitu, bai herritarren euskarazko eskaera ezagutzeko eta haren jarraipena egiteko, bai sarrera-irteerako izapideak euskaraz egin ahal izateko.

L3.4. Aldundiarekiko harremana euskaraz izatea eskatu duten herritarren eta erakundeen informazioa kudeatzeko tresnak garatu.

L3.5. Tresna informatikoetan egokitzapenak egin izapideak euskaraz egin ahal izateko.



L4. Langileen kudeaketa

L4.1. Aldundiak langile berriei harrera egiteko daukan protokoloa errebisatu eta, hala badagokio, egokitu. Langile berriak datozenean, Aldundiak lehenengo unetik bertatik zainduko du euskarazko hartu-emanak.

L4.2. Sailek neurriak hartuko dituzte ziurtatzeko sailera heltzen diren langile berriei harrera euskaraz egiten zaiela eta hizkuntza-kudeaketaren gaineko argibideak ematen zaizkiela.

L5. Laneko prestakuntza

L5.1. Langileei zuzendutako prestakuntzan euskaraz egin daitezkeen ikastaroen eskaintza handitu.

L5.2. Mikroplanak ezarrita dauden ataletan lehentasun osoa izango du prestakuntza euskaraz emateak. Halaber, hizkuntza-eskakizunak gaindituta dauzkaten langileek lehentasun osoa izango dute prestakuntza euskaraz jasotzeko, eta, horien artean, 3. hizkuntza-eskakizuna edo 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta daukatenean. Euskaraz egiten diren ikastaroak ez dira zenbatuko Aldundiak langileen prestakuntza bideratzeko ezarrita dituen mugen barruan.

L5.3. Lanpostuan euskararen erabilera sustatzeari begira, langileen hizkuntza-gaikuntza hobetzeko eta birziklatzeko prestakuntza-ikastaroen eskaintza handitu.

L6. Administrazioekiko kanpo-harremanak

L6.1. Erakundeen arteko akordioak bultzatuko dira, Aldundiak beste administrazioekin eta erakunde pribatuekin dituen hartu-emanak euskaraz izan daitezen gero eta gehiago: bilerak, ahozko harremanak, idatzizko komunikazioak, proiektu bateratuak, etab.

L7. Erakundearen kudeaketan euskararen kudeaketak duen txertatze-maila

L7.1. Sailei erabilera-plana kudeatzeko aholkularitza eman, modu progresiboan hizkuntzen kudeaketa euren kudeaketa orokorrean integratu dezaten.



L7.2. Sailek behar diren giza-baliabide eta baliabide ekonomikoak ezarriko dituzte erabilera plana garatzeko, kudeatzeko eta erakundeko kudeaketa sisteman txertatzeko.

L7.3. Aldundiak egiten dituen estatistika, inkesta eta datu-bilketetan, hizkuntza-aldagaia jaso.

L8. Sortze-hizkuntza

L8.1. Ahal den kasuetan, protokoloak zehaztuko dira euskaraz sortutako agiria gaztelaniara itzuli behar denean nola jokatu finkatzeko.

L8.2. Euskaraz sortu diren agirien hartzaile batek horien gaztelaniarako itzulpena behar badu, hartzailea bera arduratuko da itzulpenaz.

L8.3. Lana euskaraz egiten laguntzen duten tresna eta baliabide informatikoak instalatu ordenagailuetan (hiztegiak, zuzentzaile ortografikoak, etab.). Ahal denetan, itzulpen- eta terminologia-datutegietarako sarbidea emango da.

L9. Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak

L9.1. Bizkaiko Foru Aldundian hizkuntza ofizialak erabiltzeko indarrean dauden irizpideak errebisatu eta eguneratu.

L9.2. Sailek, zeinek bere eragin-eremuan, Aldundian hizkuntza ofizialak erabiltzeko ezarrita dauden irizpideak bete eta betearazi.



12. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNEN ETA DERRIGORTASUN-DATEN EZARPENA

12.1. Lanpostuei esleitutako hizkuntza-eskakizunak

Bizkaiko Foru Aldundiak V. plangintzaldiaren hasieran burutu zuen lanpostuetako hizkuntza-eskakizunen egokitzapen orokorra. Horren ondotik ezarritako hizkuntza-eskakizunak irizpide berberei jarraituta ezarri dira. VI. plangintzaldian bere horretan mantenduko dira esleituta dauden hizkuntza-eskakizunak.

Bestalde, hizkuntza-eskakizunen ezarpenari dagokionez, kontuan izan behar da HAKOBak (*hizkuntza-gaietarako Herri Administrazioak Koordinatzeko Batzordea*) 2017an onetsi zuen hizkuntza-eskakizunak esleitzeko proposamena. Proposamen horren helburua da herri-administrazioek irizpide bateratuen arabera jokatzeko euren lanpostuetan hizkuntza-eskakizunak esleitzerakoan. Bizkaiko Foru Aldundian ezarrita dauden hizkuntza-eskakizunak bat datoz HAKOBak onetsitako proposamenarekin.

12.2. VI. plangintzaldirako derrigortasun-indizea

86/1997 Dekretuaren 11. artikulua ezartzen duenari jarriki, derrigorrez bete beharreko indizeak ezarriko du administrazio bakoitzean eta plangintzaldi bakoitzean zein den derrigorrezko eskakizunen portzentajea.

Halaber, ezartzen du plangintzaldi bakoitzerako indizea finkatzeko, plangintzaldia hasten denerako indarrean dagoen Erroldan edo Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikan jasotako azken datuak erabiliko direla, betiere herri-administrazio bakoitzari dagokion jarduera-esparrua kontuan hartuta.

Horretarako formula honakoa da: $\text{derrigortasun-indizea} = \text{euskaldunak} + \text{ia euskaldunak}/2$.

EUSTATEk eman dituen 2016ko Biztanleria eta Etxebizitzako Estatistikaren arabera, honakoak dira Bizkaiko Lurralde Historikoari dagozkion datuak:

Biztanleak Bizkaia (*)	Euskaldunak		Ia euskaldunak		Erdaldunak	
	kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%
1.113.955	407.859	% 36,61	219.598	% 19,71	486.498	% 43,67

(*) 2 urtetik gorako biztanleak

Ondorioz, hau da VI. plangintzaldirako BFari dagokion derrigortasun-indizea:
 $\% 36,61 + (\% 19,71/2) = \% 46,47$



12.3. VI. plangintzaldirako derrigortasun-data berriak esleitzeko irizpideak

V. plangintzaldiaren ebaluazioaren emaitzek erakutsi duten bezala, Bizkaiko Foru Aldundiaren lanpostuen ia % 80k dute derrigortasun-data ezarrita. Kopuru esanguratsua da, eta, dudarik gabe, orain arteko plangintzaldietan egin den ahaleginaren adierazgarri nabarmena da.

VI. plangintzaldian ezarpen kualitatiboari eman nahi zaio garrantzia, planaren xede nagusian jaso bezala, herritarrekiko harremanetan erabilera areagotzeki eta herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzekari begira. Horregatik, VI. plangintzaldian derrigortasuna jendaurreko harrerarekin lotuko da, bereziki zainduz haur edota gazteekiko hartu-eman.

Ondorioz, derrigortasun-data ondorengo kasu hauetan ipiniko da:

- 1) Jendaurreko ataletan sortzen diren lanpostu berrietan.
- 2) Gainerako administrazio-ataletan sortzen diren lanpostu berrietan, herritarrekiko hartu-eman zuzena dutenean. Hartu-emanak hurrekin edo gazteekin direnean (2-25 urte), derrigortasuna ipiniko da nahiz eta hartu-emanak noizbehinkakoak izan.
- 3) Edozein kasutan ere, derrigortasun-data esleituko zaie euskaldun-kopurua %50etik gorakoa den herrietan kokatutako lanpostu berriei, EUSTATen 2016ko Biztanleria eta Etxebizitzako Estatistikaren arabera.
- 4) VI. plangintzaldian BFari dagokion derrigortasun-indizea oinarri hartuta, atal elebidunen kasuan, aurreko irizpideak betetzen ez dituzten lanpostuak sortzen badira, horietan ere derrigortasunak ezarriko dira, atalean sortutako lanpostu berri guztien artean % 50eko kopurua bermatu arte.

Horretarako, administrazio atal elebidunetan, era honetara jokatuko da aurreko irizpideak betetzen ez dituzten lanpostu berrien kasuan:

4.1 Lanpostuak banan-banan sortzen badira:

- 4.1.1 Atalean sortzen den lehenengo lanpostua baldin bada, beti ezarriko zaio derrigortasun-data.
- 4.1.2 Horren ostean, atalean arian-arian lanpostu gehiago sortzen badira, une oro bermatuko da atalean sortutako lanpostu guztien % 50ri derrigortasuna ezartzen zaiola.



4.2 Aldi berean lanpostu bat baino gehiago sortzen denean ere, irizpide orokorrari jarraituko zaio; horrenbestez, une oro bermatuko da atalean sortutako lanpostu guztien % 50ri derrigortasuna ezartzen zaiola.

Lehentasan-hurrenkera hau hartuko da kontuan derrigortasunak erabakitzeko orduan:

4.2.1 Lanpostuen maila: maila altuagoa duten lanpostuek lehentasuna izango dute beheagoko mailako lanpostuen aurrean.

4.2.2 Lanpostuen ahozko harreman-sarea: ahozko harreman-sare zabalagoa duten lanpostuek lehentasuna izango dute sare txikiagokoen aurrean.

4.2.3 Lanpostuen idatziko harreman-sarea: idatziko harreman-sare zabalagoa duten lanpostuek lehentasuna izango dute sare txikiagokoen aurrean.

4.3 Elebidun izendatuta ez dauden ataletan ez da ezinbestekoa izango ehunekoa ziurtatzea.

Aurreko 1), 2), 3) eta 4) kasuetan derrigortasunak modu egokian ezarriko direla ziurtatzeko, Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak txostena egingo du, zeinean zehaztuko baita sortuko den lanpostu bakoitzean herritarrekiko harremana norainokoa den.

Txosten horretan, hala badagokio, lanpostuari derrigortasuna ez ipintzearen arrazoiak azalduko dira, eta ziurtatu beharko da lanpostuak ez duela hartu-eman zuzenik herritarrekin, bereziki haur edota gazteekin, ez ahoz, ez idatziz. Halaber, ziurtatu beharko da 4) kasuan ezarritako gutxieneko ehunekoa betetzen dela.

Aurreko lau kasuetan esleitzen diren derrigortasunen data, lehentasunez, lanpostua sortzen den eguneko izango da.

5) Aipatutako lanpostuez gain, VI. Plangintzaldian zehar, salbuespen gisa, beste lanpostu batzuetan ere derrigortasun-data ezarri ahal izango da, baldin eta hauetako egoera bat ematen bada:

5.1 Lanpostua euskararen erabilera areagotzeko egitasmo zehatz baten barruan kokatuta baldin badago (esate baterako, EraMi batean edo ataleko modulu batean, etab.).

5.2 Lanpostuaren ohiko jarduna euskaraz baldin bada.

5.3 Sailaren erabilera-planean aurreikusita dauden helburuak lortzeko beharrezkoa baldin bada.



Horretarako, ezinbestekoa izango da sailak bere erabilera plana onartuta izatea. Sailak txostena egingo du, eta, bertan, derrigortasuna ipintzearen arrazoiak zehaztuko ditu eta neurri horrek euskararen erabilera areagotzeko egitasmoekin daukan lotura azalduko du.

Halaber, beharrezkoa izango da Euskara Zuzendaritza Nagusiak eta Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak aldeko txostena ematea.

12.4. Administrazio-atalen izaera

86/1997 Dekretuaren 15. artikuluan xedatzen denaren arabera, administrazio-atal elebidunak eta, hala badagokio, euskarazkoak izendatu behar dira. Administrazio-atal elebidunak eta, bidezkoa bada, euskaraz dihardutenak izango dira euskal administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko plana finkatzeko oinarri eta euskarria.

Halaber, dekretuaren 17. artikulua xedatzen duenaren arabera, euskararen erabilera normalizatuz joan dadin, gutxieneko helburuak ezarriko dira. Gutxieneko helburu horiek derrigortasun-indizearen arabera zehaztuko dira. Goian adierazi bezala, Bizkaiko Foru Aldundiari dagokion derrigortasun indizea % 46,47 da; hortaz, atal elebidunak jarri behar dira jendaurreko izaera duten unitateetan, gazteekin harremana duten unitateetan, gizarte izaerako unitateetan eta izaera orokorreko unitateetan.

Aurreko plangintzaldietan derrigortasun-indizearen arabera Bizkaiko Foru Aldundiari ez zegokion izaera orokorreko atalak elebidun izendatzea; hala ere, 1999an Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartu zenean, xedapen horri salbuespen batzuk egin zitzaizkion, eta ondorengo planetan ere irizpide horri jarraitu zitzaion.

V. plangintzaldian (2013-2017) Bizkaiko Foru Aldundiaren atalen azterketa zehatza egin zen, eta, ezarritako irizpideen arabera, hainbat atal elebidun berri izendatu ziren, baita izaera orokorreko eta zeharkako batzuetan ere.

VI. plangintzaldiari dagokionez, 86/1997 dekretuaren 17. artikulua xedatzen duena kontuan hartuta izendatu dira atal elebidunak. Halaber, VI plangintzaldian zehar sor litezkeen atal berriak ere aipatutako dekretuak ezartzen duenaren arabera izendatuko dira sortu ahala, hurrengo plangintzaldiari dagokion plana onartu arte itxaron gabe.

Administrazio-atal elebidunek lehentasuna izango dute erabilera sustatzeko programak eta ekimenak ezartzean. Halaber, atal elebidunetako langileek lehentasuna izango dute laneko prestakuntza euskaraz jasotzerakoan.



Aurreko guztia kontuan izanda, honakoa da Bizkaiko Foru Aldundiaren administrazio-atalen sailkapen eguneratua:

SAILA: AHALDUN NAGUSIAREN KABINETEA

Kodea	Administrazio atala	Izaera	Elebiduna
01001	ZERBITZU ZENTRALEN ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
011	KOMUNIKAZIORAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA		
012	KANPO EKINTZAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA		
01201	FUNTSAK KUDEATZEKO ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
012011	FUNTSAK KUDEATZEKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
01202	EUROPARI BURUZKO ORIENTAZIOA BIDERATZEKO ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
012021	EUROPARI BURUZKO ORIENTAZIOA BIDERATZEKO ATALA	JENDAURREKOA	BAI
013	BIZKAIKO BEHATOKIAREN ZUZEND. NAGUSIA		
01301	BIZKAIKO BEHATOKIAREN ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI

SAILA: IRAUNKORTASUNA ETA INGURUNE NATURALA ZAINTEZKO SAILA

Kodea	Administrazio atala	Izaera	Elebiduna
02001	IRAUNKORT.ETA INGURUNE NATURALA ZAINTEZ. SAILAREN ZZ.OO. ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
020011	GIZA BALIABIDEEN ETA ANTOLAKETAREN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
020012	EKONOMIA ETA AURREKONTUAK KUDEATZEKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
02002	AHOLKULARITZA ETA ARAU GARAPENE BIDERATZEKO ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
020021	INFORMAZIO ETA AHOLKULARITZA ATALA	ZEHARKAKOA	BAI
020022	ARAUBIDE JURIDIKOAREN ETA KONTRATAZIOAREN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
021	NEKAZARITZA ZUZENDARITZA NAGUSIA		
02101	ABELTZAINZTA ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
021011	ABERE OSASUN ETA ONGIZATERAKO ATALA	GIZARTE IZAERA	ZENTROEN ARABERA
021012	ABEREEN AUKERAKETA ETA HOBEKUNTZARAKO ATALA	GIZARTE IZAERA	ZENTROEN ARABERA



02102	NEKAZARITZA ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
021021	LANDARE EKOIZPENAREN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
021022	NEKAZARITZAREN HOBEEKUNTZA ETA LANDARE BABESA BULTZATZ. ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
02103	LANDA GARAPENERAKO ZERBITZUA	JENDAURREKOA	BAI
021031	LANDA AZPIEGITUREN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
021032	NEKAZARITZA EGITUREN ATALA	JENDAURREKOA	BAI
021033	NEKAZARITZARI LAGUNTZEKO ATALA	JENDAURREKOA	BAI
02104	BASO ZERBITZUA	JENDAURREKOA	BAI
021041	BASOAK ZAINDU ETA ANTOLATZEKO ATALA (I. ALDEA)	GIZARTE IZAERA	BAI
021042	BASOAK ZAINDU ETA ANTOLATZEKO ATALA (II. ALDEA)	GIZARTE IZAERA	BAI
021043	BASOAK ZAINDU ETA ANTOLATZEKO ATALA (III. ALDEA)	GIZARTE IZAERA	BAI
021044	BASO-JABETZA PUBLIK.BABES, ESPERIMENT.ETA DEFENTSARAKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
02105	EHIZA FAUNA ETA ARRANTZA KUDEATZEKO ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
021051	EHIZA ETA IBAIETAKO ARRANTZA ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
021052	FAUNA BASATIAREN ETA ABERE ESPERIMENTAZIOAREN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
022	INGURUMENEN KUZENDARITZA NAGUSIA		
02201	INGURUMENAREN KALITATEA ZAINTEKO ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
022011	INGURUMEN IRAUNKORRA ETA INGURUM.HEZKUNTZA BULTZATZEKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
022012	INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN EBALUAZIOARAKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
02202	NATURA ONDAREA ZAINTEKO ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
022021	BIODIBERTSITATEA ETA PASAIA ZAINTEKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
022022	NATURAGUNE BABESTUAK KUDEATZEKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
02203	HIDROLOGIA ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
02204	INGURUMENA KUDEATZEKO ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
022041	INGURUMEN AZPIEGITUREN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
022042	INGURUMENA LEHENGORATZEKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI



SAILA: GIZARTE EKINTZA SAILA

Kodea	Administrazio atala	Izaera	Elebiduna
031	ADMINISTRAZIORAKO ETA GIZARTE SUSTAPENERAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA		
03101	GIZARTE EKINTZAKO ZERBITZU OROKORREN ZERBITZUA	ZEHARKAKOA	BAI
031011	BERRIKUNTZA ETA SISTEMEN ATALA	ZEHARKAKOA	BAI
031012	EKONOMIA ETA AURREKONTU ATALA	ZEHARKAKOA	BAI
031013	BARNE KUDEAKETAREN ATALA	ZEHARKAKOA	BAI
03102	ERAKUNDE JARDUEREN ETA GIZARTE PROIEKTUEN ZERBITZUA	JENDAURREKOA	BAI
031021	ERAKUNDE JARDUEREN ATALA	JENDAURREKOA	BAI
03103	IKUSKAPEN ETA KONTROL ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
031031	KONTROL ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
031032	IKUSKAPEN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
03104	UMEEN ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
031041	HARRERA, EBALUAZIO ETA ORIENTAZIO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
031042	FAMILIA HARRERAREN ETA ADOPZIOEN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
033	AUTONOMIA PERTSONALA SUSTATZEKO ZUZENDARITZA NAGUSIA		
0331	PERTSONEN AUTONOMIA SUSTATZEKO ZUZENDARIORDETZA NAGUSIA	GIZARTE IZAERA	BAI
03311	ZENTROEN ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
033111	MENDEBASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONENTZAKO ZENTROEN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
033112	DESGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONENTZAKO ZENTROEN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
03312	PRESTAZIOEN ETA DIRU-LAGUNTZEN ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
033121	LAGUNTZEN ETA DIRU-LAGUNTZEN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
033122	PRESTAZIOEN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
03313	EBALUAZIO ETA ORIENTAZIO ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
033131	MENDEBASUNAREN EBALUAZIORAKO ETA ORIENTAZIORAKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
033132	DESGAITASUNA EBALUATZEKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI

SAILA: EUSKARA ETA KULTURA SAILA



Kodea	Administrazio atala	Izaera	Elebiduna
04001	EUSKARA ETA KULTURAKO ZERBITZU OROKORREN ZERBITZUA	ZEHARKAKOA	BAI
040011	AHOLKULARITZA TEKNIKOAREN ETA LANGILERIAREN ATALA	ZEHARKAKOA	BAI
040012	AURREKONTUEN ETA KUDEAKETAREN ATALA	ZEHARKAKOA	BAI
04002	KIROL ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
040021	ESKOLA KIROLAREN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
040022	KIROL FEDERATUAREN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
040023	UDAL KIROLAREN ETA KIROL AZPIEGITUREN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
041	EUSKARA ZUZENDARITZA NAGUSIA		
04101	EUSKARA ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	EUSKARA
041011	HIZKUNTZ NORMALIZAZIO ATALA	GIZARTE IZAERA	EUSKARA
041012	HIZKUNTZA GIZARTERATZEKO ATALA	GIZARTE IZAERA	EUSKARA
041013	ITZULPEN, TERMINOLOGIA ETA HIZKUNTZ TEKNOLOGIAREN ATALA	GIZARTE IZAERA	EUSKARA
042	KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA		
04201	KULTURA ONDAREAREN ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
042011	FORU AGIRITEGI HISTORIKOAREN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
042012	ESKU-HARTZE ARKITEKTONIKOAREN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
042013	FUNTS BIBLIOGRAF.KUD. ETA FORU LIBURUT.SUSTATZEKO ATALA	JENDAURREKOA	BAI
042014	LIBURUZAINITZA AHOLKULARITZARAKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
04202	KULTUR EKINTZAKO ZERBITZUA	JENDAURREKOA	BAI
042021	ARGITALPENEN ETA KULTURA ZABALKUNDEAREN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
042022	GIZARTE-HEZKUNTZA GARATZEKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI

SAILA: OGASUN ETA FINANTZA SAILA

Kodea	Administrazio atala	Izaera	Elebiduna
0501	IDAZKARITZA OROKOR TEKNIKO	ZEHARKAKOA	BAI
05011	EKONOMI AHOLKULARITZA ZERBITZUA	ZEHARKAKOA	BAI
050111	ERAKUNDEEN ARTEKO KONPROMISOEN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
050112	EKONOMI AZTERLANEN ATALA	ZEHARKAKOA	BAI
05012	LEGE AHOLKULARITZA ZERBITZUA	ZEHARKAKOA	BAI



05013	ZERGA POLITIKOAREN ZERBITZUA	OROKORRA	EZ
050131	ZERGA INFORMATIKAREN ATALA	OROKORRA	EZ
050132	ZERGA AZTERLANEN ATALA	OROKORRA	BAI
050133	ARAU GARAPENAREN ATALA	OROKORRA	BAI
051	OGASUNeko ZUZENDARITZA NAGUSIA		
05111	ZERGAK KUDEATZEKO ETA ZERGADUNARI LAGUNTZEKO ZUZENDARIORDETZA	ZEHARKAKOA	BAI
051111	ZUZENEKO ZERGEN ZERBITZUA	JENDAURREKOA	BAI
0511111	JARDUERA ENPRES. ETA PROFES. EGIATZAPEN. ETA INFORMAZIOORAKO ATALA	JENDAURREKOA	BAI
0511112	SOZIALATEEN GAI. ZERG., EG. EZ DIR. ERREN. GAI. ZERG. ETA K.O. ATALA	JENDAURREKOA	BAI
0511113	OINORDETZA ETA DOHAINTZEN GAINEKO ZERGAREN ATALA	JENDAURREKOA	BAI
0511114	P.F.E. GAINEKO ZERGAREN ETA ONDAREAREN GAINEKO ZERGAREN ATALA	JENDAURREKOA	BAI
05112	ZEHARKAKO ZERGEN ZERBITZUA	JENDAURREKOA	BAI
051121	ONDARE ESKUALDAKETEN ETA EGINTZA JURIDIKO DOKUM.GAI.ZERG. ATALA	JENDAURREKOA	BAI
051122	BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAREN ATALA	JENDAURREKOA	BAI
051123	Z. GARRAIO B. GAINEKO ZERG. BER., ASEG. PRIM. G. ZERG. ETA JOK. G. ZERG. T. ATALA	JENDAURREKOA	BAI
051124	FABRIKAZIOAREN GAINEKO ZERGA BEREZIEN ETA INGURUMEN ZERGEN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
05113	ZENTSUA KONTROLATZEKO ETA UDAL ZERGAK KUDEATZEKO ZERBITZUA	JENDAURREKOA	BAI
051131	EKONOM. JARDUER. GAINEKO ZERG., BESTE SARR. PUBL. BAT. ETA INF. AIT. ATALA	JENDAURREKOA	BAI
051132	ZERGA ZENTSUEN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
051133	ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAREN ATALA	JENDAURREKOA	BAI
051134	IDENTIFIKAZIO ETA EUSKARRIEN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
05114	ZERGADUNARENTZAKO INFORMAZIO ETA LAGUNTZA ZERBITZUA	JENDAURREKOA	BAI
051141	ZERGA INFORMAZIOAREN ATALA	JENDAURREKOA	BAI
051142	ERREGISTROAREN ETA JAKINARAZPENEN ATALA	JENDAURREKOA	BAI
051143	BULEGO DESZENTRALIZATUAK	JENDAURREKOA	BAI



KOORDINATZEKO ATALA			
051144	HERRITARREI ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOKO ZERB.EMATEKO ATALA	JENDAURREKOA	BAI
0512	IKUSKAPEN ZUZENDARIORDETZA	OROKORRA	EZ
051201	BULEGO TEKNIKOAREN ATALA	OROKORRA	EZ
05121	IKUSKARITZA KOORDINATZEKO ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
051211	ZERGA-AGIRIEN ATALA	OROKORRA	EZ
051212	ZERGA AGENTEEN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
05122	PLANGINTZA ZERBITZUA	ZEHARKAKOA	BAI
05123	AUDITORIA INFORMATIKOAREN ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
05124	IKUSKAPEN JARDUEREN ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
0513	ZERGA-BILKETA ZUZENDARIORDETZA	GIZARTE IZAERA	BAI
05131	ZERGABILKETA ZERBITZUA	JENDAURREKOA	BAI
051311	GERORAPENEN ATALA	JENDAURREKOA	BAI
051312	ZERGA-BILKETA KUDEATZEKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
051314	JARDUKETA BEREZIEN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
05132	DIRUZAINNTZA ETA BERMEEN ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
051321	SARREREN ETA ERAKUNDE LAGUNTZAILEEN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
051322	BERME ETA PAGUEN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
05133	ZERGA-BILKETA IKUSKATZEKO ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
051331	KONKURTSO PROZEDUREN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
0514	KOORDINAZIORAKO ETA LAGUNTZA TEKNIKORAKO ZUZENDARIORDETZA	OROKORRA	EZ
05141	KOORDINAZIO ETA BARNE KONTROLERAKO ZERBITZUA	ZEHARKAKOA	BAI
05142	ZERGA DOKTRINAREN ZERBITZUA	OROKORRA	EZ
052	KATASTROAREN ETA ZERBITZUEN ZUZENDARITZA NAGUSIA		
05201	OGASUN ETA FINANTZEN ZERBITZU OROKORREN ZERBITZUA	ZEHARKAKOA	BAI
052011	GIZA BALIABIDEEN ETA PRESTAKUNTZAREN ATALA	ZEHARKAKOA	BAI
052012	EKONOMIA BALIABIDEEN ETA EROSKETEN ATALA	ZEHARKAKOA	BAI
05202	KOMINIKAZIO, KALITATE ETA ANTOLAKETAKO ZERBITZUA	JENDAURREKOA	BAI
052021	KALITATE ETA ANTOLAKETAKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI



052022	KOMUNIKAZIO ETA ARGITALPENEN ATALA	JENDAURREKOA	BAI
05205	KATASTRO ETA BALORAZIO ZERBITZUA	JENDAURREKOA	BAI
052051	KATASTRO ATALA	JENDAURREKOA	BAI
052052	BALORAZIO ATALA	JENDAURREKOA	BAI
052053	KATASTROAREN INGUR. AZTERK., PROZED., INF. SIST. LANK. BIDERATZEKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
053	FINANTZA, AURREKONTU ETA ONDAREAREN ZUZENDARITZA NAGUSIA		
05301	FINANTZA ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
053011	ZOR PUBLIKOAREN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
053012	FINANTZA PLANGINTZAREN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
05302	ONDARE ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
053021	INBENTARIO ETA LAGUNTZA TEKNIKOAREN ATALA	ZEHARKAKOA	BAI
053022	ARAUBIDE JURIDIKOAREN ATALA	ZEHARKAKOA	BAI
0531	AURREKONTUETARAKO ETA EKONOMIA KONTROLERAKO ZUZENDARIORDETZA	ZEHARKAKOA	BAI
05311	AURREKONTU ETA KONTABILITATE ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
053111	AURREKONTUAK GERTATU ETA KUDEATZEKO ATALA	ZEHARKAKOA	BAI
053112	AURREKONTUEN PLANGINTZA ETA ASTERKETARAKO ATALA	ZEHARKAKOA	BAI
053113	KONTABILITATE ATALA	ZEHARKAKOA	BAI
053114	KUDEAKETA KONTROLATZEKO ATALA	ZEHARKAKOA	BAI
05312	FISKALIZAZIO ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
053121	SARRERAK FISKALIZATZEKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
053122	GASTUAK FISKALIZATZEKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
053123	ORDAINKETAK ETA LIKIDAZIOAK FISKALIZATZEKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
05313	AUDITORIA ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
053131	KANPO AUDITORIARAKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
053132	BARNE AUDITORIARAKO ATALA	ZEHARKAKOA	BAI
05314	LAGUNTZA ETA AHOLKULARITZA ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
054	FORU AUZITEGI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOA (F.A.E.K.A.)		
0541	F.A.E.A.KO ZUZENDARIORDE BURUORDETZA	GIZARTE IZAERA	BAI
05411	F.A.E.A.KO IDAZKARITZA ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI



054111	ADMINISTRAZIO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
054112	PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA	GIZARTE IZAERA	BAI
054113	ZUZENEKO BESTE ZERGA ITUNDU BATZUEN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
054114	ZEHARKAKO ZERGA ITUNDUEN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
054115	ZERGABILKETA ETA UDAL ZERGEN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI

SAILA: GARRAIOAK, MUGIKORTASUNA ETA LURRALDEAREN KOHES SUSTATZEKO SAILA

Kodea	Administrazio atala	Izaera	Elebiduna
06001	GARRAIOAK, MUGIKORT.ETA LURRALDE KOHESIOA SUSTATZEKO. ZZ.OO. ZERBITZUA	ZEHARKAKOA	BAI
060011	SISTEMAK MODERNIZATZEKO ETA F.P.I.KOA KUDEATZEKO ATALA	ZEHARKAKOA	BAI
060012	PROGRAMAZIO ETA EKONOMIA KUDEATZEKO ATALA	ZEHARKAKOA	BAI
061	GARRAIOAK ETA MUGIKORTASUNA SUSTATZEKO ZUZENDARITZA NAGUSIA		
06101	GARRAIOEN ANTOLAMENDU ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
061011	EMAKIDEN ETA IKUSKAPENAREN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
061012	MERKATUGAIEN ETA BAIMENEN ATALA	JENDAURREKOA	BAI
06102	BIDAIARIEN GARRAIO ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
061021	AZTERLANEN ETA PLANGINTZAREN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
061022	GARRAIOAREN ERAGIKETA ETA KUDEAKETA ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
062	LURRALDEAREN KOHESIOA SUSTATZEKO ZUZENDARITZA NAGUSIA		
062001	HIRIGINTZAKO ATAL JURIDIKOA	GIZARTE IZAERA	BAI
062002	LURRALDE ANTOLAMENDURAKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
06201	HIRIGINTZAKO PLANGINTZA ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
062011	UDAL PLANGINTZA ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
062012	INFORMAZIO GEOGRAFIKOAREN ETA KARTOGRAFIAREN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
062013	ADMINISTRAZIO KOORDINAZIOKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI

SAILA: HERRI ADMINISTRAZIORAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILA

Kodea	Administrazio atala	Izaera	Elebiduna
-------	---------------------	--------	-----------



07001	IDAZKARITZA OROKORREKO UNITATEA	OROKORRA	BAI
071	ARAUBIDE JURIDIKOAREN ETA FUNTZIO PUBLIKOREN ZUZENDARITZA NAGUSIA		
07101	LEGE AHOLKULARITZARAKO ZERBITZUA	ZEHARKAKOA	BAI
0711	FUNTZIO PUBLIKOAREN ZUZENDARIORDETZA NAGUSIA	ZEHARKAKOA	BAI
07111	LANGILEAK KUDEATZEKO ZERBITZUA	JENDAURREKOA	BAI
071111	ORDAINSARI ARAUBIDEAREN ATALA	ZEHARKAKOA	BAI
071112	LAN HARREMANEN ATALA	JENDAURREKOA	BAI
07112	ANTOLAKETA ZERBITZUA	ZEHARKAKOA	BAI
071121	PLANGINTZAREN ETA AZTERLANEN ATALA	ZEHARKAKOA	BAI
071122	PRESENTZIA KONTROLATU ETA IKUSKATZEKO ATALA	ZEHARKAKOA	BAI
07113	LANGILEEN AUKERAKETARAKO ETA TREBAKUNTZARAKO ZERBITZUA	JENDAURREKOA	BAI
071131	LANGILEEN AUKERAKETARAKO ETA LAN POLTSEN KUDEAKETARAKO ATALA	JENDAURREKOA	BAI
071132	TREBAKUNTZA ETA GARAPEN PROFESIONALERAKO ATALA	ZEHARKAKOA	BAI
07114	LANGILERIARI BURUZKO LEGE ZERBITZUA	ZEHARKAKOA	BAI
071141	ARAUBIDE JURIDIKOAREN ATALA	ZEHARKAKOA	BAI
071142	AHOLKULARITZA ETA ARAU GARAPENA BIDERATZEKO ATALA	ZEHARKAKOA	BAI
07115	LAN ARRISKUEN PREBENTZIORAKO ETA LAN OSASUNERAKO ZERBITZUA	ZEHARKAKOA	BAI
071151	LAN ARRISKUEN PREBENTZIORAKO ATALA	ZEHARKAKOA	BAI
071152	OSASUNERAKO ATALA	ZEHARKAKOA	BAI
072	ZERBITZUEN, UDAL HARREMANEN ETA LARRIALDIEN ZUZENDARITZA NAGUSIA		
0721	PREBENTZIO, SUHILTZAILE ETA SALBAMENDU ZUZENDARIORDETZA NAG.	GIZARTE IZAERA	BAI
07211	PREBENTZIO, SUHILTZAILE ETA SALBAMENDU ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
072111	SUHILTZAILE ETA SALBAMENDU ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
072112	SUTEEN PREBENTZIORAKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
072113	ATAL TEKNIKO ADMINISTRATIBOIA	GIZARTE IZAERA	BAI
0722	ZERBITZUEN ETA UDAL HARREMANEN ZUZENDARIORDETZA NAGUSIA	GIZARTE IZAERA	BAI
07221	HERRI ADMIN. ETA	ZEHARKAKOA	BAI



	ERAK.HARREMANETARAKO SAILEKO ZZ.OO.EN ZERBITZUA		
072211	AHOLKULARITZA ETA LAGUNTZA ADMINISTRATIBOA EMATEKO ATALA	ZEHARKAKOA	BAI
072212	IBILGAILUEN ATALA	ZEHARKAKOA	BAI
072213	KUDEAKETA ETA EKONOMIA AHOLKULARITZA BIDERATZEKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
072214	FORU MOLDIZTEGIAREN ATALA	ZEHARKAKOA	BAI
07222	KONTRATAZIO ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
072221	ZERBITZUEN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
072222	HORNIDUREN ATALA	ZEHARKAKOA	BAI
072223	KONTRATAZIOKO OBREN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
072224	KONTRATAZIOKO LEGE AHOLKULARITZARAKO ATALA	ZEHARKAKOA	BAI
07223	ARKITEKTURA, MANTENTZE LANAK ETA ZERBITZU TEKNIKOAK BID. ZERBITZUA	ZEHARKAKOA	BAI
072231	MANTENTZE LANAK BIDERATZEKO I. ATALA	ZEHARKAKOA	BAI
072232	MANTENTZE LANAK BIDERATZEKO II. ATALA	ZEHARKAKOA	BAI
072233	MANTENTZE LANAK BIDERATZEKO III. ATALA	ZEHARKAKOA	BAI
072234	ARKITEKTURA ATALA	ZEHARKAKOA	BAI
07224	UDAL AZTERLANETARAKO ETA TOKI ERAKUND. EKON. LAGUNTZARAKO ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
072241	EKONOMIA LAGUNTZARAKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
072242	UDAL AZTERLANEN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
072243	AHOLKULARITZA ETA ARAUAK BIDERATZEKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
072244	LAGUNTZA JURIDIKORAKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
073	MODERNIZAZIO, GOBERNAMENDU ON ETA GARDENTASUNERAKO KABINETEA		
073001	LEGE AHOLK., INFORM. SEGURT. ETA DATU BABES. BIDERATZEKO ATALA	ZEHARKAKOA	BAI
073002	EKONOMIA ETA AURREKONTU ATALA	ZEHARKAKOA	BAI
0731	ADMINISTRAZIOAREN MODERNIZAZIORAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA		
07311	ADMINISTRAZIOAREN MODERNIZAZIORAKO ZERBITZUA	ZEHARKAKOA	BAI
073111	ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOAREN ATALA	ZEHARKAKOA	BAI
073112	ERREGISTROA ETA HERRITARRENGANAKO	JENDAURREKOA	BAI



	LAGUNTZA BIDERATZEKO ATALA		
073113	ADMINISTRAZ.BERRIKUNTZ.ETA TEKNOLOG.AZPIEGITURETARAKO ATALA	ZEHARKAKOA	BAI
0732	GOBERNAMENDU ONERAKO ETA GARDENTASUNERAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA		
073201	AHOLKULARITZA TEKNIKORAKO ATALA	ZEHARKAKOA	BAI

SAILA: EKONOMI ETA LURRALDE GARAPENA SUSTATZEKO SAILA

Kodea	Administrazio atala	Izaera	Elebiduna
081	ENPRESAK SUSTATZEKO ETA EKONOMIA GARATZEKO ZUZENDENDARITZA NAGUSIA		
08101	EKONOMI ETA LURRALDE GARAPENA SUSTATZEKO SAILAREN ZZ.OO. ZERBITZUA	ZEHARKAKOA	BAI
081011	AURREKONTUEN KOORDINAZIORAKO ETA EKONOMIARAKO ATALA	ZEHARKAKOA	BAI
081012	ANTOLAKETA-SISTEMEN ATALA	ZEHARKAKOA	BAI
081013	ATAL JURIDIKO-ADMINISTRATIBOA	ZEHARKAKOA	BAI
0811	ENPRESAK ETA BERRIKUNTZA SUSTATZEKO ZUZENDARIORDETZA NAGUSIA	GIZARTE IZAERA	BAI
08111	ENPRESAK SUSTATZEKO ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
081111	ENPRESA EKIMEN BERRIAK BULTZATZEKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
081112	RZPIEGITURETARAKO ETA ESKUALDE ESTRATEGIARAKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
08112	BERRIKUNTZA ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
081121	BERRIKUNTZA ETA LEHIAKORTASUNA BULTZATZEKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
081122	BERRIKUNTZAK EGITEKO LANKIDETZARAKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
082	KANPO SUSTAPENERAKO ETA TURISMORAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA		
082001	TURISMO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
08201	KANPO SUSTAPENERAKO ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
082011	INTERNAZIONALIZAZIO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
082012	INFORMAZIO ATALA	JENDAURREKOA	BAI
082013	TALENTUA SUSTATZEKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
083	AZPIEGITURETARAKO ETA LURRALDE GARAPENERAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA		



08301	DESJABETZEEN ETA UKITURIKO ZERBITZUEN ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
083011	ADMINISTRAZIO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
083012	ATAL TEKNIKOA	GIZARTE IZAERA	BAI
08302	BIDEEN SEGURTASUNERAKO-HOBEKUNTZA-MODERNIZAZIORAKO ZERBITZUA	OROKORRA	EZ
083021	PROIEKTUEN ETA OBREN ATALA	OROKORRA	EZ
083022	HITZARTURIKO INBERTSIOEN ETA KUDEAKETA ADMINIST. ATALA	OROKORRA	EZ
083023	BIDEEN SEGURTASUNERAKO ATALA	OROKORRA	EZ
08303	USTIAPEN ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
083031	USTIAPENENKO ATAL JURIDIKOA	GIZARTE IZAERA	BAI
083032	USTIAPENENKO ATAL TEKNIKOA	OROKORRA	EZ
0831	AZPIEGITURAK GARATZEKO ZUZENDARIODETZA NAGUSIA	OROKORRA	EZ
08311	PLANGINTZAREN ETA PROIEKTUEN ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
083111	PLANGINTZA ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
083112	INGURUGIRO SOSTENGARRITASUN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
08312	ERAIKUNTZA ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
083121	OBREN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
083122	LAGUNTZA TEKNIKO ATALA	OROKORRA	EZ
08313	TEKNOLOGIA ETA INBENTARIO ZERBITZUA	OROKORRA	EZ
083131	INBENTARIO ETA AUSKULTAZIO ATALA	OROKORRA	EZ
083132	ERREPIDE TEKNOLOGIA ATALA	OROKORRA	EZ
0832	BIDE-SAREA KUDEATZEKO ZUZENDARIODETZA NAGUSIA	OROKORRA	EZ
08321	KONTSERBAZIO ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
083211	GAINEGITURA ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
083212	AZPIEGITURA ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
08322	PLANGINTZA ZERBITZUA	OROKORRA	EZ
083221	ESKARIAREN KUDEAKETA ATALA	OROKORRA	EZ
083222	TUNELEN SEGURTASUNA ZAINTEZKO ATALA	OROKORRA	EZ

SAILA: ENPLEGUA, GIZARTE INKLUSIOA ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO SAILA

Kodea	Administrazio atala	Izaera	Elebiduna
091	ENPLEGUA SUSTATZEKO ZUZEND. NAGUSIA		



09101	ENPLEGUA SUSTATZEKO ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
091011	ENPLEGUA SUSTATZEKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
09102	ENPLEGUA, GIZ.INKLUSIOA ETA BERDINTASUNA SUSTAT.ZZ.OO. ZERB.	ZEHARKAKOA	BAI
091021	ANTOLAKETA ETA GIZA BALIABIDEEN ATALA	ZEHARKAKOA	BAI
091022	LEGE ETA AURREKONTU ATALA	ZEHARKAKOA	BAI
092	GIZARTE INKLUSIOA SUSTATZEKO ZUZENDARITZA NAGUSIA		
09201	INKLUSIOA SUSTATZEKO ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
092011	EBALUAZIOA ETA ORIENTAZIO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
092012	ESKU-HARTZE SOZIALERAKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
09202	EMAKUMEAK BABESTEKO ETA FAMILIEI LAGUNTZEKO ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI
092021	EMAKUMEEN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI
093	BERDINTASUNERAKO, LANKIDETZARAKO ETA DIBERTSITATERAKO ZUZEND. NAGUSIA	GIZARTE IZAERA	BAI



13. ANTOLAKUNTZA EGITURAK

Honako egitura hauek osatuko dira VI. plangintzaldiko erabilera-plana garatzeko eta implementatzeko:

Bizkaiko Foru Aldundiko Hizkuntza Ofizialen Batzorde Nagusia

- Batzordeburua: Euskara eta Kulturako foru diputatua.
- Batzordeko buruordea: Euskara zuzendari nagusia.
- Batzordekideak:
 - Euskara Zerbitzuko burua
 - Hizkuntz Normalizazio Ataleko burua.
 - Hizkuntz Normalizazio Ataleko teknikaria.
 - Funtzio Publikoaren Zuzendariordetzaren arduraduna.
 - Sail bakoitzeko Zerbitzu Orokorren Zerbitzuko burua.
 - Langileen Batzordeko edo Enpresa Batzordeko ordezkaria.
- Idazkaria: Euskara Zuzendaritza Nagusiko teknikaria, hitzarekin baina botorik gabe.

Hizkuntza Ofizialen Batzorde Nagusia urtean behin bilduko da, gutxienez, eta, besteak beste, honako eginkizun hauek izango ditu:

- Saisetako hizkuntza-normalizazioaren egoera aztertzea, eta, azterketa hori oinarri hartuta, proposamen berriak egitea.
- Plana aurrera ateratzeko sor daitezkeen eragozpenak gainditzen laguntzea.
- Hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko arauak sailetan betetzen direla zaintzea.

Hizkuntzen kudeaketarako sailen arteko talde teknikoa

Honako hauek izango dira taldekideak:

- Saisetako hizkuntzen kudeaketarako teknikari solaskideak.
- Euskara Zuzendaritzako kideak.
- Horiez gain, unean uneko beharrianen arabera, beste kide batzuk ere deituak izan daitezke lantaldean parte hartzeko.

Lantalde hau Euskara Zuzendaritzak koordinatuko du, eta eginkizun hauek izango ditu, besteak beste:

- Saisetako plan estrategikoak eta kudeaketa-planak koordinatzea.
- Plana aurrera eramateko neurriak eta ekintzak lantzea, hobekuntzak proposatzea, edota sail batean baino gehiagotan egin daitezkeen ekintza bateratuak adostea.



- Saisetako urteko kudeaketa planen balorazioak aztertzea eta sistematikak bateratzea.
- Hizkuntzen kudeaketaren inguruan sor daitezkeen hobekuntza-beharrizanak aztertzea eta irtenbideak proposatzea.
- Bizipenak eta proposamenak elkarri helarazteko gune izatea eta Aldundiko sailen artean hizkuntzen kudeaketa eta eraginkortasuna optimizatzeko sinergiak sortzea.

Hizkuntzen kudeaketarako sail barruko lantaldea

Sail guztiek lantaldea osatuko dute hizkuntzen kudeaketa ahalbidetzeko. Lantaldea Euskara Zuzendaritza Nagusiaren gidaritzarekin arituko da. Gutxienez, honako kide hauek izango dira lantaldean:

- Zerbitzu Orokorretako burua edo berak izendatzen duen teknikaria.
- Saileko hizkuntzen kudeaketarako teknikari solaskidea.
- Hizkuntz Normalizazio Atalak izendatutako teknikaria.



14. BALIABIDEAK

14.1. Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak

VI. plangintzaldiko erabilera-plan honekin batera, berriro eta eguneratu egingo dira 22/2009 Foru Dekretuaren bidez emandako hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak, gaur egungo hizkuntz- eta lege-egoerara hobeto moldatzeko helburuz.

Hainbat urte igaro dira Bizkaiko Foru Aldundiak une honetan indarrean dituen HOElak onartu zituenetik, eta beharrezko ikusten da bertan jasotako zenbait alderdi eguneratzea, eraginkorragoak eta euskararen erabilerarako baliagarriagoak izan daitezen.

Bizkaiko Foru Aldundian urte askotan langileak euskalduntzen egin diren ahaleginen ondorioz, langile ugari dute euskaraz lan egiteko gaitasuna, maila batean edo bestean; dena dela, oraindik ere, urte luzeetako inertiaren indarrez, gaztelaniaz jarraitzen da lanean gehienbat. Eta garbi dago bi hizkuntza ofizialak orekaz eta berdintasunez erabili behar ditugula, Administrazioa benetan elebiduna izango bada.

Izan ere, erabileran datza gakoa, eta hortxe dago koska eta erronka. Formalki aitormen bera duten euskara eta gaztelania egiazki maila berean jartzea da helburua; guri dagokigunez, Bizkaiko Foru Aldundian euskara ere gaztelaniaren maila berera eramateko urratsak ematea da egitekoa.

Azken finean, administrazioak ele bietan jardun dezan, behar-beharrezkoa da langile bakoitzak jakitea zein egoeratan erabili behar dituen bi hizkuntza ofizialak, alegia, noiz, zer eta norekin egin behar duen euskaraz edo gaztelaniaz.

Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak, bada, bitarteko guztiz garrantzitsuak dira Aldundiko langile eta agintari guztientzat, ezinbesteko arau eta gida baitira hizkuntza ofizialak zelan erabili eta kasuan-kasuan zelan jokatu jakiteko.

Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak Aldundi osorako arau dira (haren erakunde autonomoetarako eta foru-sektore publikoko entitateetarako ere bai), eta, horrenbetez, bertan ezartzen dena bete eta betearazi beharrekoa da.

Hala izanik, sail eta zuzendaritza guztien ardura da ziurtatzea kasu guztietan irizpideak zuzen betetzen direla. Halaber, sail eta zuzendaritza guztien ardura da, zein bere eragin-eremuan, irizpideok menpeko langile guztiek ezagutzen dituztela ziurtatzea.



14.2. Langileen hizkuntza-prestakuntza

Bizkaiko Foru Aldundiak urteetan egin izan duen ahaleginari esker, emaitza esanguratsuak lortu dira langileen hizkuntza-gaitasunari dagokionez. Nabarmenezkoa da, esate baterako, langileen ia % 85ek egiaztatuta daukatela derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna. Bestalde, derrigortasunik ez daukaten langileen artean ere ia % 30ek egiaztatuta daukate dagokien hizkuntza-eskakizuna.

Halaber, nabarmenezkoa da langileen % 52k egiaztatuta daukatela 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna.

Hori horrela izanda ere, oraindik begi-bistakoa da jarraitu behar dela langileen hizkuntza-prestakuntza bultzatzen, Aldundia administrazio benetan elebiduna izatera iritsiko bada. Izan ere, langileen euskara-gaitasun teorikoa handia den arren, praktikan zailtasun ugari izaten da eguneroko jardunean euskara behar adinako erraztasunez eta konfiantzaz erabiltzeko. Ezagutzatik erabilerara dagoen jauzia gainditzeko, langileen euskara-gaitasuna faktore garrantzitsua da dudarik gabe, eta horretan jarraitu beharra dago VI. plangintzaldian ere.

V. plangintzaldiko erabilera-planean ezarritako bideari jarraiki, langileen hizkuntza-prestakuntzak bi ardatz nagusi izango ditu:

- Alde batetik, euskalduntzeko ikastaroak eskainiko dira langileek hizkuntza-gaitasuna lortzeari begira, betiere Bizkaiko Foru Aldundiak IVAPEkin duen hitzarmenaren barnean eta Aldundiak horretarako dituen baliabide eta bitartekoen barnean. Ikastaro horiek euskaltegietan egingo dira, eta IVAPEk herri-administrazioei zuzendutako deialdietan ezartzen dituen baldintzen arabera eskaini eta gauzatuko dira.
- Beste aldetik, erabilera sustatzeko prestakuntza eskainiko da hizkuntza-eskakizuna lortuta daukaten langileei begira. Jarraipena emango zaie orain arte egon diren modalitateei (EraMiak, ataleko moduluak, saio presentzialak eta onlineko moduluak). Plangintzaldian zehar beharrezko iritzitako egokitzapenak egin ahal izango dira aipatutako modalitateetan, eta, beharrezkoak izanez gero, modalitate eta ikastaro berriak jarri ahal izango dira martxan.

14.2.1. Hizkuntza-gaitasuna lortzeko prestakuntza

Prestakuntza honen helburua da Bizkaiko Foru Aldundiko langileen hizkuntza-gaitasuna areagotzea euskaltegietan emandako euskara-ikastaroen bidez, betiere hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko helburuarekin. VI plangintzaldian ere Bizkaiko Foru Aldundiak erabileran benetan sakontzen jarraitu nahi du, bereziki sortze-lanaren bidetik. Horretarako, ezinbestekoa da Aldundiko langileek euskaraz eroso



aritzeko adinako ezagutza izatea. Horren ondorioz, aurreko plangintzaldietan ezarritakoari jarraiki, Bizkaiko Foru Aldundiak 3. HEra arteko hizkuntza-prestakuntza bermatzen jarraituko du, lanpostuak beheragoko hizkuntza-eskakizuna esleituta izan arren, eta 4. HEra artekoa, lanpostuan 3. HE ezarrita duten langileen kasuan.

Ondorengo puntuetan ematen dira ikastaroen ezaugarri, baldintza eta betekizunen inguruko argibide orokorrak.

Nori zuzenduta dago hizkuntza-prestakuntza?

Hizkuntza-prestakuntza Bizkaiko Foru Aldundiko langile guztiei zuzenduta dago.

Hala ere, Aldundiko langile guztiek ez dute erakundearekiko kontratu-harreman bera, eta, horren ondorioz, aukerak eta lehentasunak ezberdinak izan behar dira, langile bakoitzak duen kontratu-motaren arabera eta lanpostu bakoitzak ezarria duen hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun-dataren egoeraren arabera.

Bi egoera horiek kontuan izanda, eta hizkuntza-prestakuntzako ikastaroen eskaintza antolatu nahian, Aldundiko langileak multzo edo talde hauetan banatu dira:

TALDEA	EGOERA	LAN-HARREMANA
I. TALDEA	Dedikaziorik gabeko Bizkaiko Foru Aldundiko langileak.	Karrerako funtzionarioak, edozein taldetakoak direla (90-94). Mugagabeko lan-kontratu arrunta duten langileak, edozein taldetakoak direla (1). Beste administrazio batzuetako karrerako funtzionarioak (85-89).
II. TALDEA	Dedikaziorik gabeko Bizkaiko Foru Aldundiko langileak, lanpostuan derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna badute edo administrazio-atal elebidun batean kokatuta badaude.	Bitarteko funtzionarioak, edozein taldetakoak direla (70-74). Ordezkapenatarako bitarteko funtzionarioak (50 eta 16). Zatikako erretiroagatik txandakako lansaiosoko kontratua duten langileak (38). Beste administrazio batzuetako karrerako funtzionarioak diren eta Bizkaiko Foru Aldundian



		zerbitzugintzako egoeran daudenak (95-97).
III. TALDEA	Dedikaziorik gabeko Bizkaiko Foru Aldundiko langileak, lanpostuan derrigorrezko hizkuntza-eskakizunik ez badute eta administrazio-atal elebidun batean kokatuta ez badaude.	Lansaioa murrizteagatik zatikako kontratu mugagabea duten langileak (23). Langile finakoak edo txandakako aldi baterako kontratu finakoak duten langileak (21) eta (18). Zatikako erretiroagatik zatikako aldi zehatz baterako kontratua duten langileak (34). Hizkuntza-prestakuntza pertsonalizatuan sartu nahi ez duten eta behin-behineko kontratua duten langileak (63). Zatikako erretiroagatik ordezkapeneko lansaio osoko kontratua duten langileak (38), bitarteko funtzionarioak, bitarteko funtzionarioen taldeetako edozeinetan daudenak (70-74), ordezkapeneko bitarteko funtzionarioak (50 eta 16), eta, beste administrazio batzuetakoak izanik, Bizkaiko Foru Aldundian zerbitzugintzan dauden karrerako funtzionarioak (95-97), betiere II. taldean sartuta ez badaude.
IV. TALDEA	Dedikazioa duten Bizkaiko Foru Aldundiko langileak	
V. TALDEA	Izaera ez-administratiboa duten Prebentzio, Suhiltzaile eta Salbamendu Zerbitzuko langileak eta beste kolektibo batzuk.	Karrerako funtzionarioak edo bitarteko funtzionarioak.

Aurreko atalotan aipatutako kontratu-motetako bat ez duten gainerako langileak ez dira ikastaroen eskaintzan sartzen.



Salbuespen legez, beren taldeko ikastaroetara joateko ezintasuna behar bezala egiaztatzen duten langileek, beste talde batzuentzako ikastaroetara joateko eskabidea egin ahal izango dute, baina Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren baimena eta Euskara Zuzendaritza Nagusiaren adostasuna jaso beharko dute.

Nolanahi ere, etorkizunean beste kontratu-motarik sortzen bada, halako kontratu-mota berri baten bidez kontratatzen diren pertsonak talde batean edo bestean sartuko dira, berez egin zaien kontratu-motaren ezaugarri berezien arabera, kontratuaren iraupenaren arabera, prestazioa gauzatu behar den urteko sasoiaren arabera eta kontratazioak ukitutako unitatearen zuzeneko antolaketan eragin dezakeen beste edozein ezaugarriren arabera.

Ikastaroen eskaintza betiere Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretan dauden aurrekontu-zuzkidurei lotuta egongo denez gero, ikastaro horiek finantzatzeko dauden ekonomia-baliabideak une bateko ikastaro-eskariari erantzuteko nahikoak ez direnean, hurrengo lehentasun-hurrenkerari jarraituz egingo da ikastaroetako langileen onarpena:

- 1) Derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak betetzen dituzten karrerako funtzionarioak eta lan-kontratu finkoko langileak, dedikaziorik gabekoak.
- 2) Dedikazioa duten karrerako funtzionarioak, derrigortasuna eduki zein eduki ez.
- 3) Derrigortasunik gabeko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak betetzen dituzten karrerako funtzionarioak eta lan-kontratu finkoko langileak, dedikaziorik gabekoak.

Euskara ikastaroak egiteko eskabideen izapidetzeari dagokionez, eskabideak deialdi bakoitzean ezarritako baliabideak erabilia tramitatuko dira. Egindako eskaerak lehen-lehenik sail bakoitzak onartu edo ukatuko ditu Euskara Zuzendaritza Nagusiak hori egiteko ezartzen duen epearen barruan eta aginte katea jarraituta, hau da, arduradun organikoa -ataleko edo zerbitzuko burua- eta zerbitzu orokorretako arduraduna. Halaber, sailek ebatziko dituzte eurek ukatu dituzten eskaeren ondoriozko egintzak, hala dagokionean.

Bertan behera geratuko dira sailek epearen barruan izapidetzen ez dituzten eskabideak.

Bestalde, sailek onartutako eskaerei dagokienez, Euskara Zuzendaritza Nagusiak eskaerak aztertuko ditu eta onartu edo ukatu egingo ditu deialdi bakoitzean ezarritako baldintzak eta betekizunak kontuan izanda. Halaber, Euskara Zuzendaritza Nagusiak onarpenaren edo ukapenaren berri emango die interesatuei,



arduradun organikoei –ataleko edo zerbitzuko buruei- eta saileko zerbitzu orokorretako arduradunari, eta berak ukatu dituen eskaeren ondoriozko egintzak ebatziko ditu, hala dagokionean.

Amatasun eta aitatasun, babes eta adopzioagatiko lizentzia-bajei dagokienez, egoera horietako batean dauden langileek, trebakuntzako bestelako ikastaroekin gertatu ohi denez, Foru Aldundiaren gainerako trebakuntza-ikastaroetarako baldintza beretan egin ahal izango dituzte euskara-ikastaroak.

EUSKARA IKASTEKO ESKAINTZA OROKORRA

Bizkaiko Foru Aldundiak bere langileei egiten dien ikastaroen eskaintza IVAPEk onartutakoaren arabera izango da.

Nolanahi ere, foru-langileak ikastaroen eskaintzaz baliatu ahal izango dira, baldin eta esleitu zaien ordu-kredituan aldeko saldoa badute eta ez badute 3HE egiaztatuta.

4. HEko ikastaroak egin ahal izateko, beharrezkoa izango da 3. HE egiaztatuta izatea eta lanpostuan 3. HE edo 4. HE esleituta izatea.

Beharrezkoa den kasuetan, IVAPEk mailaketa-proba egitera deituko du eskatzailea. Mailaketa-probara aurkeztu ezik, bertan behera utziko da ikastarorako eskabidea.

Ikasturte osoko ikastaroak

14.2.1.1. Barnetegiko ikastaroak

Barnetegiko ikastaro hauek IVAPEk zehaztutako barnetegietan egin daitezke.

Hartzaileak:

I. taldeko langileak.

Baldintzak:

Ikastaro mota hau barnetegi batean egin beharko da oso-osorik; beraz, ez da onartuko bestelako modalitatearik (pentsio erdia, esaterako).

Ikastaroek lau hileko iraupena izango dute (urritik otsailera eta otsailetik ekainera), eta ikastaroen hasiera eta amaiera, baita jaiegunak ere, euskaltegiaren egutegian finkatutakoak izango dira.

Barnetegiko ikastaroak egin ahal izateko, nahitaezkoa izango da euskalduntzeko 3. urratsa gainditurik edukitzea.

Joan-etorriek sortutako gastuei dagokienez, asteko bidaia bat (joan-etorria) ordainduko da. Hilaren amaieran, langileak Zerbitzu Orokorretako buruari aurkeztu



beharko dio joan-etorriek eragindako gastuen kitapena. Kitapen horrek Hizkuntz Normalizazio Atalaren oniritzia izan beharko du.

14.2.1.2. Bost orduko ikastaroak

IVAPek ezarriko du langile bakoitzak ikastaroa zein euskaltegitan egin behar duen.

Hartzaileak:

I. taldeko langileak.

Baldintzak:

Ikastaro hauetara doazen langileak lansaio osotik salbuetsita egongo dira. Horrenbestez, ikastaroak dirauen bitartean, langileek ez dute fitxatu beharko, baina puntualitatea zorrotz beteko dute eta ez dute ordutegiaren malgutasunik izango ez ikastarora sartzean ez ikastarotik irteteen.

Ikastaroek lau hileko iraupena izango dute (urritik otsailera eta otsailetik ekainera); IVAPek zehaztuko ditu ikastaroen hasiera eta amaiera, baita jaiegunak ere.

14.2.1.3. Goizeko ikastaroak lanorduen barruan

IVAPek ezarriko du langile bakoitzak ikastaroa zein euskaltegitan egin behar duen.

Hartzaileak:

I., II. eta IV. taldeko langileak.

Baldintzak:

Ikastaro hauetara doazen Aldundiko langileek fitxatu egingo dute lanlekura heltzen direnean, euskaltegitik itzultzerakoan.

Ikastaroen ordutegia: goizeko lanorduen barruko ikastaroak, beranduen, 10:00etan amaitu beharko dira.

Ikastaro hauek ikasturte osoa iraungo dute (urritik ekainera); IVAPek zehaztuko ditu ikastaroen hasiera eta amaiera, baita jaiegunak ere.

14.2.1.4. Lanorduetatik kanpoko ikastaroak

Ikastaro hauetan egin behar den gutxieneko ordu-kopurua IVAPek bere urteroko deialdietan ezartzen dituen muga araberakoa izango da.

Ikastaro hauek edozein euskaltegi homologatutan egin ahal izango dira, publikoa nahiz pribatua, eta interesatuak berak aukeratuko du zeinetan egin.

Hartzaileak:

I., II., III., IV. eta V. taldeetako langileak.



Baldintzak:

Ikastaro-mota honetan interesatuta dauden pertsonak lan-ordutegitik kanpoko orduetan egin beharko dute ikastaroa.

Ikastaro-mota honek ikasturte osoa iraungo du (urritik ekainera). IVA Pek zehaztuko ditu ikastaroen hasiera eta amaiera, baita jaiegunak ere.

Langileen ordutegia ikastaroa duten egunetan:

EGUTEGI MOTA	EGIN BEHARREKO LANSATIOA
Astean arratsalde batean lan egiten duten langileak	<p>Sei (6) orduko jarduna, ezarritako malgutasun-mugen barruan. Lansatioa ezingo da amaitu 14:00ak baino lehen.</p> <p>Langile hauek salbuetsita daude asteko arratsaldetik, betiere dagokien arratsaldean eskola baldin badute.</p> <p>Ikastaroa udako ordutegian suertatzen denean, eguneko jarduna bost (5) ordukoa izango da. Lansatioa ezingo da amaitu 13:30ak baino lehen.</p>
Goizez bakarrik lan egiten duten langileak	<p>Sei (6) ordu eta hogeita (20) minutuko jarduna, ezarritako malgutasun-mugen barruan. Lansatioa ezingo da amaitu 14:00ak baino lehen.</p> <p>Ikastaroa udako ordutegian suertatzen denean, eguneko jarduna bost (5) ordukoa izango da. Lansatioa ezingo da amaitu 13:30ak baino lehen.</p>
Zatitutako lansatioak duten langileak	<p>Sei (6) ordu eta hogeita (20) minutuko jarduna, ezarritako malgutasun-mugen barruan. Lansatioa ezingo da amaitu 14:00ak baino lehen.</p> <p>Ikastaroa udako jardunean suertatzen denean, eguneko jarduna bost (5) ordukoa izango da. Lansatioa ezingo da amaitu 13:30ak baino lehen.</p>
Izaera ez-administratiboa duten Prebentzio, Suhiltzaile eta Salbamendu Zerbitzuko langileak	24 orduko txandetako langileek ordu 1 konpentsatuko dute ikastaroaren eskola-egun bakoitzeko. Konpentsazio hori 24 orduko kopurura arte metatu ahal izango da, eta zaintza bat



	<p>libratzeko aukera emango du. Hala ere, zerbitzuaren beharrianek baldintzatuko dute zaintza hori, baina beti ikastaroan zehar (urritik ekainera) libratu beharko da.</p> <p>Komunikazio-zentroko langileek ordu 1 konpentsatuko dute ikastaroaren eskola-egun bakoitzeko, eta konpentsazio hori egutegiaren lansaio osoa osatu arte metatu ahal izango da. Hala ere, zerbitzuaren beharrianek baldintzatuko dute librantzako lansaio hori.</p> <p>Egutegi mistoa duten langileek (24 orduko lansaioak eta goizeko lansaioak) ordu 1 konpentsatuko dute ikastaroaren eskola-egun bakoitzeko, eta konpentsazio hori egutegiaren lansaio osoa osatu arte metatu ahal izango da. Lansaio hori, hala ere, goizekoa soilik izan daiteke.</p>
Ordu-tegi normalizatuek aparteko ordu-tegiak dituzten beste kolektiboak	Banan-banan aztertuko da kasu bakoitza.

14.2.1.6. Autoikaskuntzako ikastaroak

Ikastaro hauek euskaltegi publiko zein pribatu batean edo autoikaskuntzako zentro homologatu batean egin ahal izango dira.

Hartzaileak:

V. taldeko langileak.

Baldintzak:

Lanorduetatik kanpo egin beharko dira. IVAPek zehaztuko ditu, bere urteroko deialdietan, autoikaskuntzarako onartu ahal izango den eskabide-kopurua eta ikastaroan egin behar den gutxieneko ordu-kopurua (VI. plangintzaldiaren hasieran IVAPek ezarrita daukanaren arabera, autoikaskuntzako ikastaroak gutxienez 190 ordukoak izan behar dira).

14.2.1.7. 4HE prestatzeko ikastaroak

IVAPek ezarriko du langile bakoitzak ikastaroa zein euskaltegitan egin behar duen.

Hartzaileak:



Lanpostuan 3.HE edo 4.HE ezarrita duten foru-langileak, hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa izan nahiz ez. Horrez gain, ikastaro mota hau egin ahal izateko, 3. HE egiaztaturik eduki beharko da edo horren baliokide den agiriren baten jabe izan beharko da.

Baldintzak:

Ikastaroak urritik ekainera iraungo du. IVAPek ezarriko ditu ikastaroaren hasiera-eta amaiera-datak eta egutegia.

Ikastaroa lanorduetatik kanpo egiten duten langileen kasuan, arestian “*Lanorduetatik kanpoko ikastaroak*” atalean jasotakoa izango da egunean egin beharreko lansaioa, nork bere lan-egutegiaren arabera.

Udako ikastaroak

Udako ikastaroen xedea da ikasleek ikasturtean zehar eskuratu dituzten ezagupenak finkatzea. Udako ikastaro bat egin ahal izateko, aurretik IVAPen deialdiaren barruko ikastaroren bat egin behar da ikasturtean zehar.

Udako ikastaroak uztailean, abuztuan edo irailean egingo dira.

Ikastaroak HABEK homologatuta egon behar dira, eta euskaltegi publikoetan edo pribatu homologatuetan egin behar dira.

IVAPek zehaztuko du, bere urteroko deialdietan, udako ikastaroetan egin behar den gutxienezko ordu-kopurua (VI. plangintzaldiaren hasieran IVAPek ezarrita daukanaren arabera, udako ikastaroak gutxienez 80 ordukoak izan behar dira).

14.2.1.8. Udako ikastaroak barnetegian

Hartzaileak:

Bizkaiko Foru Aldundiko langile guztiak, baldin eta ikasturtean zehar IVAPen deialdiaren barruko ikastaroren bat egin badute.

Barnetegiko ikastaro bakarra egin ahal izango da uda bakoitzean.

Barnetegiko udako ikastaroen ezaugarriak:

Oso-osorik barnetegi batean egin behar dira; beraz, ez da onartuko bestelako modalitaterik (pentsio erdia, esaterako), ez eta asteburuetan etxera etortzerik ere.

Baldintzak:

Barnetegira doazen langileak lanetik aske geratuko dira ikastaroak iraun bitartean, izaera ez-administratiboa duten Prebentzio, Suhiltzaile eta Salbamendu Zerbitzuko



langileak izan ezik. Langile horien kasuan, barnetegiko egonaldiaren % 50 langileen kontura izango da, eta honela egingo dute librantza:

- Batetik, 24 orduko txandetako langileei dagokienez: barnetegiko egunen erdiak konpentsatuko zaizkie, egun bakoitzeko 8 ordu eta 7 minutu hain zuzen ere. Udako barnetegiaren aukera interesatuaren oporraldiaren barruan gauzatu beharko da.
- Bestetik, komunikazio zentroko langileei eta egutegi mistoa duten langileei dagokienez: barnetegiko egunen erdiak konpentsatuko zaizkie, egun bakoitzeko 8 ordu hain zuzen ere. Udako barnetegiaren aukera interesatuaren oporraldiaren barruan gauzatu beharko da.

Joan-etorriek sortutako gastuei dagokienez, bidaia bakarra ordainduko da ikastaroan (joan-etorria). Langileak Zerbitzu Orokorretako buruari aurkeztu beharko dizkio joan-etorriek eragindako gastuen kitapena. Kitapen horrek Hizkuntz Normalizazio Atalaren oniritzia izan beharko du.

14.2.1.9. Udako ikastaro trinkoak

Hartzaileak:

I., II., III. eta IV. taldeetako langileak, baldin eta ikasturtean zehar IVAPen deialdiaren barruko ikastaroren bat egin badute.

Baldintzak:

Ikastaroak lanorduetatik kanpo egin beharko dira.

Egin beharreko lansaioa:

Udako lansaioa duten langileen eguneko jarduna bost (5) ordukoa izango da. Lansaioa ezingo da amaitu 13:30ak baino lehen. Gainerako kasuetan, eguneko jarduna sei (6) ordu eta hogeita hamar (20) minutukoa izango da, ezarrita dauden malgutasun-mugen barruan. Lansaioa ezingo da amaitu 14:00ak baino lehen.



14.2.2. Lanpostuan euskararen erabilera sustatzeko prestakuntza

VI. plangintzaldian Bizkaiko Foru Aldundiak bultzada egokia ematen jarraitu nahi du euskara zerbitzu- eta lan-hizkuntza eta harreman-hizkuntza ere izan dadin. Hizkuntza-gaitasuna izateak edo lanpostuaren HE egiaztatuta izateak berez ez du esan nahi euskara administrazio-atal baten lan-esparruan erabiltzen denik. Hori dela eta, komenigarria da baldintza egokiak sortzen eta langileei beharrezkoak diren bitartekoak ematen jarraitzea, langileak haien eginkizunak euskaraz ere egiteko gai izan daitezen, egoerak hala eskatzen duenean.

Horrenbestez, euskararen erabilera sustatzeko eta euskararen erabilera sustatzera bideratutako bitartekoak banatzeko, VI. plangintzaldian jarraipena emango zaie lehendik inplementatuta egon diren programei:

- EraMia
- Administrazio-ataleko modulua
- Modulu presentziala
- Online modulua

Programa horien baldintzak eta ezaugarriak egokitu ahal izango dira, erabileraren ikuspuntutik eragingarriagoak izan daitezen.

Edozein kasutan, egon dauden baliabideen eraginkortasuna bermatzeko, lehenasunen hurrenkera hau ezarri da erabilera sustatzeko prestakuntzako programen artean: EraMia, Administrazio-ataleko modulua eta modulu presentziala. Bestalde, eskaera-kopurua kontuan hartuta, lehenasuna emango zaie arrakasta izateko aukera gehien duten unitateei. Egoera soziolinguistikoa, lan-baldintzak, ataleko buruen lidergoa eta ataleko langileen borondatea baloratuko dira.

Aipatutako moduluez gain, plangintzaldian zehar beste ikastaro batzuk eskaini ahal izango dira, langileen kasuan kasuko beharrezko erantzun ahal izateko.

14.2.2.1. EraMia (Erabilera Mikroplana)

EraMiaren helburua da kasuan kasuko administrazio-atalean euskara zerbitzu- eta lan-hizkuntza izatea. EraMian parte hartzea erabakitzen duen administrazio-atalak, Euskara Zerbitzuarekin lankidetzan, bere eginkizunak euskaraz garatu ahal izateko helburu zehatzak eta horiek lortzeko urratsak zehaztuko ditu.

Bi bide aurreikusten dira EraMi bat ezartzeko:

1. Administrazio-atal batek, ataleko buruaren bidez eta saileko zuzendaritzaren oniritziarekin, bere nahia adieraztea Hizkuntz Normalizazio Atalari.



2. Hizkuntz Normalizazio Atalak, zenbait baldintza eta ezaugarri aztertu ondoren egoera egokia dela ikusirik, atalari proposamena aurkeztea. Bigarren honetan, beharrezkoa da, proposamena jaso eta aztertu ondoren, atalak onartzea.

14.2.2.2. Administrazio-ataleko modulua

Laneko eginkizun eta zereginak euskaraz garatu ahal izateko, langileei hizkuntza-ezagutza nahikoa ematea da modulu honen xedea. Modulu hau eskatu ahal izango dute hainbat arrazoi dela bide EraMiaren proiektuan murgiltzeko prest ez daudela uste duten unitateek; baina, betiere, zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza euskara izateko aurrerapausoak ematea izango dute helburu, unitate bakoitzaren errealitatea kontuan hartuta eta bere zereginak eta laneko dokumentazioa oinarri izanda.

14.2.2.3. Euskararen erabilera sustatzeko modulu presentziala

Modulu honen xedea da langileei laguntzea berez dituzten eginkizun eta zereginak hizkuntza ofizial bietako edozeinetan garatu ahal izateko hizkuntza-gaitasuna berreskuratzen, mantentzen eta hobetzen.

Bizkaiko Foru Aldundian lan egiten duten langile guztiei dago zuzenduta modulu hau. Aldi baterako kontratatutako langileek ere parte hartu ahal izango dute modulu honetako jardueretan, baldin eta Aldundiarekin duten lan-harremana ikasturte guztira luzatzen bada.

Modulu presentzian parte hartzeko, 2. HE egiaztaturik eduki behar da, edo 2. HE horren pareko ahozko euskara-maila erakutsi behar da. Antolatutako jardueretara modu jarraituan joan behar da, salbu eta justifikatutako arrazoiren bat dagoenean.

14.2.2.3. Online modulua

Modulu honen barruan, Administrazio hizkera 1.0, Administrazio hizkera 2.0 eta Administrazio hizkera 3.0 ikastaroak sartzen dira. Ikastaro hauek Bizkaiko Foru Aldundiko karrerako trebakuntzaren barruan eskaintzen dira.

Bi dira ikastaroen xedeak: batetik, administrazio langileak sentibilizatzea administrazio hizkeran aldaketa egin beharraz, hizkera hori ulergarriagoa izan dadin, eta, bestetik, Administrazio langileei laguntza ematea administrazio idazkiak argi, zehatz eta zuzen idatz ditzaten.

14.3. HIZKETA aplikazioa

Bizkaiko Foru Aldundiak eskura izango du Eusko Jaurlaritzak herri-administrazio guztientzat garatu duen HIZKETA aplikazio informatikoa. Aplikazio horren bitartez,



erakundearen eta sailen planak egin ahal izango dira, bai eta urtez urteko kudeaketa-planak ere.

14.4. Sailetako erabilera-plana kudeatzeko teknikariak

VI. plangintzaldi honen oinarri metodologikoetan azaldu den bezala, Bizkaiko Foru Aldundian hizkuntzen kudeaketaren ardura erakunde osoari dagokio, ez bakarrik organo edo zuzendaritza batzuei, eta erantzukizun horrek dakar -nork bere esparruan- hizkuntzak nola kudeatuko diren lantzea, planifikatzea, gauzatzea eta horien guztien jarraipena egitea.

Eginkizun horiei guztiei aurre egin ahal izateko, sail bakoitzak beharrezkoak dituen baliabideak aurreikusiko ditu, sailari berari dagokionez eta baita gainerako sailen arteko loturari eta hartu-emanei dagokienez ere.

Horrekin lotuta, sail bakoitzak pertsona bat izendatuko du Euskara Zuzendaritza Nagusiko teknikariek solaskidetza teknikoa ahalbidetzeko. Solaskide hori une oro Euskara Zuzendaritzako teknikariek koordinatuta eta lankidetzan arituko da, eta haren egitekoen artean honakoak aurreikus daitezke:

- Sailaren plan estrategikoaren diseinua, lanketa eta kudeaketa, betiere sailaren irizpideei jarraituta.
- Urtez urteko kudeaketa-planaren diseinua, lanketa eta kudeaketa.
- Erabakitako neurrien inplementazioa eta urteko ebaluazioa.
- Sailean euskara sustatzeko programen lanketa eta garapena.

Eginkizun horiek gauzatzeko eta unean-unean sor daitezkeen bestelako egitekoak burutzeko, Euskara Zuzendaritzak aholkularitza eta laguntza teknikoa emango die sailek izendatutako solaskideei, eta, horrez gain, prestakuntza ere eskainiko die.

Ahal dela, sailek izendatutako solaskideak Zerbitzu Orokorraren zerbitzuetan txertatuta egongo dira. Gaitasun eta ezaugarri teknikoei dagokienez, komenigarria da 3. HE egiaztatuta edukitzea eta planifikazioan eta kudeaketan aritua izatea.



15. EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

Bizkaiko Foru Aldundian Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren jarraipenaren ardura orokorra Bizkaiko Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluari dagokio.

Sail bakoitzaren ardura da bere planaren jarraipena eta ebaluazioa egitea. Jarraipenak eta ebaluazioak bide eman behar du helburuak berrikusteko, estrategia eta ekintza berriak planteatzeko, eta horrela, urtez urte, sailtako erabilera-planak definitzen joateko.

Halaber, Euskara Zuzendaritza Nagusiak plangintzaldiaren amaierako ebaluazioa burutuko du eta horren berri emango dio Hizkuntza Ofizialen Batzorde Nagusiari.

Urteko kudeaketa-planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko, gutxienez, honako hauek hartuko dira kontuan:

- Planean parte hartzen duten langileak.
- Abian jarritako ekintzen nondik-norako nagusiak, betiere aipatuko delarik aurreikusitako ekintza bakoitza burututa dagoen, gerorako atzeratu, edo bertan behera utzi den.
- Ekintza horien eraginkortasun-maila, plan estrategikoan adostutako helburuak lortzeari begira.

Ebaluazioak kontuan hartuko ditu alderdi kualitatiboak (urteko planaren indarguneak eta zer hobetuak arakatu eta jasoko dira esparruka) eta kuantitatiboak (urtero neurtuko diren adierazleen zenbakizko datuak). Horren arabera, urtez urte behar diren egokitzapenak eta dagozkion ekintza zuzentzaileak erabakiko dira sail bakoitzerako.

9. puntuan azaldu den legez, VI. plangintzaldirako ezarri diren helburu orokorren betetze-maila ezagutu ahal izateko, erreferentziazko adierazleen jarraipena egingo da. Erakundeak emaitzen balorazioa egingo du eta dagozkion hobekuntza- eta zuzenketa-neurriak hartuko ditu helburuak hobeto lortu ahal izateko.

VI. plangintzaldiaren amaieran Euskara Zuzendaritza Nagusiak EME markoaren adierazleen panelaren neurketa egingo du helburu orokorren betetze-maila ebaluatzeko.

Plangintzaldiko datu kualitatiboak eta kuantitatiboak jasoko dira, eta helburuen betetze-maila neurtuko da. Ebaluazio hori egiteko V. plangintzaldia ebaluatzeko erabili diren prozedura eta irizpide berak erabiliko dira ahal den kasu guztietan, eta kontuan hartuko dira Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak administrazio



guztientzat plangintzaldiaren amaieran ematen dituen irizpide orokorrak, halakorik ematen badu.



I. ERANSKINA
EME – Elementuen taula

ARDATZA: ZERBITZU-HIZKUNTZA		
1. mailako elementuak	2. mailako elementuak	Adierazleak
1. Erakundearen irudia	1.1. Errotulazioa eta ikus-entzunezko euskarriak	Errotulazioa eta ikus-entzunezko euskarriak
	1.2. Marketina, publizitatea eta jendurreko ekitaldiak	Argitalpenak, iragarkiak, publizitate-kanpainak, prentsa-oharrak eta paper-gauzak
		Jendurreko ekitaldiak
1.3. Ingurune digitala	Webgune eta sare sozialen erabilera	
2. Herritarrekiko harremanak	2.2. Bezeroekiko/herritarrekiko harreman idatzia zerbitzua eman edo produktua eskaintzeko orduan	Bezeroekiko/herritarrekiko idatzizko harremanak
		Euskarazko eskaera idatzitari euskaraz emandako erantzunak
	2.3 Bezeroekiko/herritarrekiko ahozko harremana zerbitzua eman edo produktua eskaintzeko orduan	Harreraguneko telefono bidezko harrera, aurrez aurrekoa eta automatizatua
		Telefonoz, online eta aurrez aurre gauzatutako ahozko harremanak
		Euskarazko eskaerei euskaraz emandako erantzunak



ARDATZA: LAN-HIZKUNTZA		
1. mailako elementuak	2. mailako elementuak	Adierazleak
3. Barne-komunikazioa eta lan-tresnak	3.1. Lanari lotutako hizkuntza-paisaia	Lanari lotutako hizkuntza-paisaia
	3.2. Idatzizko komunikazio bertikala eta horizontala	Informaziorako/komunikaziorako tresnak
		Lan-bileretako idatziak
		Erakundearen barne-harremantarako idatziak
	3.3. Ahozko komunikazio bertikala eta horizontala	Erakundearen barruko lan-bileretako ahozko harremanak
		Erakundearen barruko telefonozko harremanak
Erakundearen barruko aurrez aurreko harremanak		
4. Langileen kudeaketa	4.1. Langileen kudeaketa	Langileen kudeaketa
	4.2. Laneko prestakuntza	Laneko prestakuntza ahoz eta idatziz
		Ikastaroen kudeaketa
5. Kanpo-harremanak	5.1. Administrazioa	Administrazioekiko idatzizko harremanak
		Administrazioekiko ahozko harremanak
	5.2. Erakunde pribatuak, finantza-entitateak, produktu- eta zerbitzu-hornitzaileak, etab.	Erakunde pribatuekiko idatzizko harremanak
		Erakunde pribatuekiko ahozko harremanak
6. Kudeaketa-sistema	6.1. Hizkuntzen kudeaketa kudeaketa-sistema orokorrean integratzea	Kudeaketa planaren jarraipena zuzendaritza-batzordeak egitea
		Erakundearen kudeaketan euskararen kudeaketak duen txertatze-maila
		Euskara sortze-hizkuntza
	6.2. Hizkuntzen kudeaketa bezeroekiko/herritarrekiko harremanetan eta produktuen/zerbitzuen garapenean integratzea	HOElen betetze-maila
		6.3. Hizkuntzen kudeaketa langileen kudeaketan integratzea
	Erakunde-ordezkarien hizkuntza-gaitasuna	
	Langileen eta erakunde-ordezkarien balorazioa erabilera-plana dela eta	
	Langileen eta erakunde-ordezkarien parte-hartze aktiboa erabilera-planeko ekimenetan	



II. ERANSKINA

VI. PLANGINTZALDIA - ADIERAZLE BAKOITZERAKO HELBURUAK

VI. PLANGINTZALDIA		ADIERAZLE BAKOITZERAKO HELBURUAK					ARDATZA: ZERBITZU-HIZKUNTZA		
1. MAILAKO ELEMENTUA	2. MAILAKO ELEMENTUA	LANDUKO DEN URTEA					ADIERAZLEAK	Hasierako egoera (%)	Aurreikusitako helburua (%)
		2018	2019	2020	2021	2022			
ERAKUNDEAREN IRUDIA	Errotulazioa eta ikus-entzunezko euskarriak						Errotulazio eta ikus-entzunezko euskarriak	98,67	mantendu
	Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak		X	X			Argitalpenak, iragarkiak, publizitate-kanpainak, prentsa-oharrak eta paper-gauzak (inprimakiak, gutun-azalak, bisita-txartelak...)	84,30	100
		Jendaurreko ekitaldiak						Jendaurreko ekitaldiak	43,33
	Ingurune digitala	X	X				Webgune eta sare sozialen erabilera	100	mantendu
HERRITARREKIKO HARREMANAK	Herritarrekiko harreman idatzia zerbitzua eman edo produktua eskaintzeko orduan		X	X	X		Herritarrekiko idatzizko lehenengo harremanak	71,78	100
							Euskarazko eskaera idatzia euskaraz emandako erantzunak	71,33	100
	Herritarrekiko ahozko harremana zerbitzua eman edo produktua eskaintzeko orduan		X	X	X		Harreraguneko aurrez aurreko harrera, telefono bidezko harrera eta harrera automatizatua (lehen hitza)	54,56	100
							Telefonoz, online eta aurrez-aurre burututako ahozko harreman orokorrak	22,78	43,00
						Herritarrek euskaraz hasitako elkarrizketei euskaraz emandako erantzunak	83,74	100	



VI. PLANGINTZALDIA		ADIERAZLE BAKOITZERAKO HELBURUAK					ARDATZA: LAN-HIZKUNTZA			
1. MAILAKO ELEMENTUA	2. MAILAKO ELEMENTUA	LANDUKO DEN URTEA					ADIERAZLEAK	Hasierako egoera (%)	Aurreikusita ko helburua (%)	
		2018	2019	2020	2021	2022				
BARNE-KOMUNIKAZIOA ETA LAN-TRESNAK	Lanari lotutako hizkuntza-paisaia		X	x			Lanari lotutako hizkuntza-paisaia	74,26	80,00	
	Idatzizko komunikazio bertikala eta horizontala		X	X	X	X	Informaziorako/komunikaziorako tresnak	85,78	100,00	
							Lan-bileretako idatziak	32,50	45,00	
							Erakundearen barne-harremanetarako idatziak	65,13	mantendu	
	Ahozko komunikazio bertikala eta horizontala		X	X	X	X	Erakundearen barruko lan-bileretako ahozko harremanak	15,00	30,00	
							Erakundearen barruko telefonozko harremanak	16,20	26,00	
							Erakundearen barruko aurrez aurreko harremanak	15,60	25,00	
	Baliabide informatikoak				X	X	Euskarazko bertsioen instalazioak			
						Euskarazko bertsioak				
LANGILEEN KUDEAKETA	Langileen kudeaketa		X	X	X		Langileen kudeaketa	82,98	90,00	
	Laneko prestakuntza			X	X	X	Laneko prestakuntza ahoz eta idatziz	5,23	20,00	
							Ikastaroen kudeaketa	12,00	27,00	
KANPO-HARREMANAK	Administrazioa			X	X	X	Administrazioekiko idatzizko harremanak	61,11	70,00	
							Administrazioekiko ahozko harremanak	40,00	55,00	
	Erakunde pribatuak, finantza-entitateak, produktu- eta zerbitzu-hornitzaileak, etab.			X	X	X	Erakunde pribatuekiko idatzizko harremanak	41,11	50,00	
							Erakunde pribatuekiko ahozko harremanak	33,56	45,00	
KUDEAKETA-SISTEMA	Hizkuntzen kudeaketa kudeaketa-sistema orokorrean integratzea		X	X	X	X	Erakundearen kudeaketan euskararen kudeaketak duen txertatze-maila	15,00	30,00	
							Euskara sortze-hizkuntza	25,56	40,00	
	Hizkuntzen kudeaketa herritarrekiko harremanetan eta produktuen/zerbitzuen garapenean integratzea	X	X	X	X	X	HOElen betetze maila	51,67	66,00	
	Hizkuntzen kudeaketa langileen kudeaketan integratzea							Lanpostuko HE egiaztatuta daukaten langileak guztira	73,40	mantendu
								Erakunde-ordezkarien hizkuntza-gaitasuna	80,55	mantendu
			X	X	X	X	X	Langileen eta erakunde-ordezkarien balorazioa erabilera-plana dela eta	50,00	65,00
								Langileen eta erakunde-ordezkarien parte-hartze aktiboa erabilera-planeko ekimenetan	40,00	55,00